

Gipuzkoako ekintzailetza-jardueraren 2020-2021eko diagnostikoa

GEM EAE proiektuaren luzapena

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



EEB | OVE

Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
Observatorio Vasco del Emprendimiento



Gipuzkoako ekintzailetza-jardueraren 2020-2021eko diagnostikoa

GEM EAE proiektuaren luzapena

Proiektuaren arduraduna

José Luis González Pernía

Ikertaldea

José Luis González Pernía, *Deusto Business School*

Nerea González Eguía, *Mondragón Unibertsitatea*

Jon Hoyos Iruarrizaga, *UPV-EHU*

Rebeca Martín Díaz, *UPV-EHU*

Iñaki Peña Legazkue, *Deusto Business School*

Nathaly Pinzón Rubio, *Deusto Business School*

María Saiz Santos, *UPV-EHU*

Alaitz Zabala Zarauz, *Deusto Business School*

80 o. graf. ; 29,7 zm. ISBN: 978-84-122389-2-1 ; González-Pernía. et al., 2022.

Obra hori erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko edo eraldatzeko edozein modu titularren baimenarekin bakarrik egin daiteke, legeak aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

Mesedez, aipatu argitalpen hau honela:

González-Pernía, J. L.; González-Eguía, N.; Hoyos-Iruarrizaga, J.; Martín-Díez, R.; Peña-Legazkue, I.; Pinzón-Rubio, N.; Saiz-Santos, M.; Zabala-Zarauz, A. (2022). Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren 2020-2021ko diagnostikoa. GEM EAE proiektuaren luzapena. Bilbao, España: Euskal Ekintzailtzaren Behatokia - Observatorio Vasco del Emprendimiento, EEB-OVE.

Edizioa: EEB-OVE Euskal Ekintzailtzaren Behatokia - Observatorio Vasco del Emprendimiento

Diseinu eta maketazioa: Igor Markaida

© Euskal Ekintzailtzaren Behatokia EEB-OVE

Elkano Kalea, 21

48008 Bilbo, Bizkaia

<https://www.eeb-ove.eus>

<https://gem-paisvasco.es>

info@eeb-ove.eus

© Egileak

ISBN: 978-84-122389-3-8

Lege-gordailua: BI 00610-2022

Espanian inprimatua - Printed in Spain

Edukiak

HITZAURREA	10
1. SARRERA	13
2. ATALA GIPUZKOAKO EKINTZAILETZA-JARDUERAREN ADIERAZLEEN DIAGNOSTIKOA	19
Ekintzaitzerekiko pertzepzioak eta jarrerak Gipuzkoan	20
Ekintzaitzerekiko pertzepzio, balio, jarrera eta kulturaren analisia	20
Ekintzaitzerekiko pertzepzio, balio, jarrera eta kulturaren analisia genero ikuspegia aintzat hartuta	23
Beste ingurune batzuekiko konparazioa	24
Ekintzaitletza-prozesua Gipuzkoan	32
Ekintzaitletza-prozesuaren adierazleak	32
Ekintzaitletza-prozesuaren adierazleak genero-ikuspegia aintzat hartuta	33
Beste ingurune batzuekiko konparazioa	34
Ekintzaitletza-jardueraren kalitatezantzuak Gipuzkoan	36
Jarduera-sektorea	36
Egungo enpleguaren tamaina eta etorkizuneko enpleguari buruzko itxaropenak	37
Orientazio berritzailea	39
Nazioarteko orientazioa	41
Beste ingurune batzuekiko konparazioa	41
3. ATALA EKINTZAILETZARI LAGUNTZEKO PROGRAMA PUBLIKOAK EZAGUTZEA ETA ERABILTZEA	45
Programa publikoak ezagutzea	46
Programa publikoetarako laguntzak eskatzea eta harremanetan jartzea	47
Programa publikoen onuradunak eta jasotako laguntzaren jatorria	49
Jasotako programa publikoen laguntzen eragina eta horiek gomendatzea	51
4. KORONABIRUSAREN ERAGINA EKINTZAILETZA-JARDUERAN	55
Gipuzkoako biztanleen ezagutza COVID-19ak negozioetan duen eraginari buruz	56
Gipuzkoan negozio-jarduera utzi duten pertsonen buruzko ezagutza	56
Gipuzkoan negozio bat sortu duten pertsonen buruzko ezagutza	56
COVID-19aren eragina Gipuzkoan ekiten hasteko motibazioetan eta etorkizunean enpresa berriak sortzeko asmoan	58
COVID-19aren eragina Gipuzkoan ekiten hasteko motibazioetan	58
Etorkizunean enpresa berri bat sortzeko asmoa eta COVID-19ren eragina asmo horretan	59
COVID-19aren eragina Gipuzkoako negozio-jardueran	59
Negozio-aukerak eta hazkunde-itxaropenak COVID-19aren ondorioz Gipuzkoan	60

Administrazio Zentralak COVID-19ari emandako erantzunaren balorazioa	60
COVID-19ak ekintzaitza-jardueran duen eraginari buruzko adierazle nagusiak beste lurralde-unitate batzuekin alderatuta	60
5. POLITIKA PUBLIKOETARAKO ONDORIOAK, GOGOETAK ETA INPLIKAZIOAK	65
Ekintzaitza-prozesuari buruzko adierazleen diagnostikoa	66
Programa publikoen ezagutza eta erabilera	69
Koronabirusaren eragina	70
6. ERREFERENTZIAK ETA ERANSKINAK	73
Erreferentzien zerrenda	75
Eranskina: Glosarioa	76
Eranskina. Azterlanaren fitxa teknikoa	77

Koadroen, taulen eta grafikoen aurkibidea

KOADROAK

1.1 koadroa. GEM proiektuaren kontzeptu-eredua	16
1.2 koadroa. Ekintzailletza-jarduera neurtzea, GEM proiektuaren arabera	17
1.3 koadroa. GEM proiektuaren informazio iturriak	17

TAULAK

2.1 taula. Ekintzailletzarekiko balioen eta jarrerren autopertzepzioa Gipuzkoan. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	21
2.2 taula. Gipuzkoan lurraldearen ekintzailletzarekiko kulturari buruzko pertzepzioak. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	22
2.3 taula. Ekintzailletzarekiko balioen eta jarrerren pertzepzioak Gipuzkoan, genero ikuspegia aintzat hartuta. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	23
2.4 taula. Gipuzkoan lurraldearen ekintzailletzarekiko kulturari buruzko pertzepzioak, genero-ikuspegia aintzat hartuta. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	24
2.5 taula. Ekintzailletzarekiko balio eta jarrerei buruzko pertzepzioak. Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAeko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	25
2.6 taula. Ekintzailletzarekiko kulturaren pertzepzioa. Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAeko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	26
2.7 taula. Ekintzailletza-jardueraren eta enpresa-dinamikaren bilakaera. Gipuzkoa 2015-2020	33
2.8 taula. Ekintzailletza-prozesuaren adierazleen banaketa genero-ikuspegia aintzat hartuta, Gipuzkoa 2020	34
2.9 taula. Ekintzailletza-prozesuaren adierazleak Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAeko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa	34
2.10 taula. Ekintzailletza-jardueraren kalitate zantzuak. Gipuzkoako datuen konparaketa Europar Batasuneko herrialdeetako, Espainiako eta EAeko batez bestekoarekin. 2020an elkarrizketatutako hasierako fasean dagoen biztanleria ekintzailearen (TEA) ehunekoa	42
3.1 taula. Ekintzailletzari laguntzeko programa publikoekin harremanetan jartzeko moduari buruzko ezagutza administrazio publikoaren mailen arabera. 2020an elkarrizketatutako 18 eta 64 urte bitarteko biztanle heldu guztien ehunekoa eta ekintzailletza-prozesuan duten inplikazioaren araberako bereizketa	47
3.2 taula. Azken urtean ekintzailletzari laguntzeko programa publikoen laguntza-eskaera Administrazio Publikoaren mailen arabera. 2020ko ekintzailletza-prozesuan parte hartu eta programak ezagutzen dituzten biztanleen ehunekoa	49

3.3 taula. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoetatik jasotako laguntzaren jatorria administrazio publikoaren mailen arabera. Azken urtean laguntza eskatzeko programaren batekin harremanetan jarri diren eta 2020an Ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleen ehunekoa	50
3.4 taula. 2020an identifikatutako laguntza-hartzaileek baliatu dituzten programa publikoen adibideak	50
4.1 taula. Pandemiak ekintzailtza-jardueran duen eraginari buruzko adierazleak 2020an. Gipuzkoako datuen alderaketa EA Erekin eta Espainiarekin	62

GRAFIKOAK

2.1 grafikoa. Ekintzailtzarekiko balioen pertzepzioen, ekintzailtza jarreraren eta ekintzailtzarekiko kulturaren pertzepzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2015-2020	23
2.2 grafikoa. Gipuzkoako biztanleriaren ekintzailtzarekiko balio eta jarrerei buruzko pertzepzioa 2020an, diru sarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia erkidegoekin alderatuta	28-31
2.3 grafikoa. Ekintzailtza-jardueraren eta enpresa dinamikaren emaitzak. Gipuzkoa 2020	32
2.4 grafikoa. 2020an Gipuzkoako biztanleriaren ekintzailtza-prozesuaren adierazleak, diru sarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia erkidegoekin alderatuta	35
2.5 grafikoa. 2020an Gipuzkoan ekintzailtza-jarduera gauzatzen den sektoreak	36
2.6 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen ekintzailtza-jardueraren bilakaera, jarduera-sektorearen arabera, 2015-2020	37
2.7 grafikoa. Egungo enplegua ekintzailtza-jardueran, Gipuzkoan, 2020an	38
2.8 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen ekintzailtza-jardueraren bilakaera, egungo enplegu tartearen arabera, 2015-2020	38
2.9 grafikoa. Gipuzkoan ekintzailtza-jardueraren bilakaera 2020an, 5 urtera espero duten enplegu tartearen arabera	38
2.10 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen ekintzailtza-jardueraren (TEA) bilakaera, 5 urtera espero duten enplegu tartearen arabera	39
2.11 grafikoa. Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren banaketa 2020an, produktuaren edo zerbitzuaren berritasunaren eremu geografikoaren arabera	39
2.12 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen eta produktu edo zerbitzuetan berrikuntzak egiten dituen ekintzailtza-jardueraren bilakaera. Sartutako berritasunaren eremu geografikoaren arabera. 2019-2020	40
2.13 grafikoa. Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren banaketa 2020an, produktuaren edo zerbitzuaren berritasunaren eremu geografikoaren arabera	40
2.14 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen (TEA) eta teknologia edo prozesuetan berrikuntzak egiten dituen ekintzailtza-jardueraren bilakaera. Sartutako berritasunaren eremu geografikoaren arabera. 2019-2020	40
2.15 grafikoa. Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren banaketa 2020an, atzerrian bizi diren bezeroei egindako salmenten ehunekoen arabera	41
2.16 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen eta atzerrian bizi diren bezeroei saltzen dien ekintzailtza-jardueraren bilakaera. 2015-2020	41
2.17 grafikoa. Gipuzkoak nazioartean duen posizionamendua (diru-sarrera handiko beste ekonomia batzuekin alderatuta), sortutako negozioen kalitate zantzu desberdinei dagokien 2020ko TEAren arabera	43

3.1 grafikoa. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoei buruzko ezagutza. 2020an elkarrizketatutako 18 eta 64 urte bitarteko biztanle heldu guztien ehunekoa eta ekintzailtza-prozesuan duten inplikazioaren arabera bereizketa	46
3.2 grafikoa. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoak ezagutzen dituztela dioten 18 eta 64 urte bitarteko helduen ehunekoaren bilakaera (2018-2020)	47
3.3 grafikoa. Azken urtean laguntza eskatzeko ekintzailtzari laguntzeko programa publikoekin kontaktua. 2020an ekintzailtza-prozesuan sartuta egon eta programak ezagutzen dituzten biztanleen ehunekoa	48
3.4 grafikoa. Ekintzailtza-prozesuan parte hartu duten eta, azken urtean, laguntza eskatzeko, programaren batekin harremana izan dutela dioten biztanleen ehunekoaren bilakaera (2018-2020)	48
3.5 grafikoa. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoen laguntzen onuradunak. Azken urtean laguntza eskatzeko programaren batekin harremanetan jarri diren eta 2020an ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanleen ehunekoa	49
3.6 grafikoa. Ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, laguntza eskatu eta programaren laguntza jaso duela adierazi duena (2018-2020)	49
3.7 grafikoa. Negozioaren jarraipena, ekintzailtzari laguntzeko programa publikoen laguntza jaso ez balitz. Azken urtean kontaktatutako programetako baten laguntza jaso duten eta 2020an ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanleen ehunekoa	51
3.8 grafikoa. Ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, ekintzailtzari laguntzeko programa publikoen azkenaldiko onuradun izanik, laguntza jaso izan ez balute negozioan jarraituko ez luketela baieztatzen dutenak, 2018-2020	51
3.9 grafikoa. Laguntzaren jatorri den ekintzailtza babesteko programa publikoaren gomendioa. Azken urtean kontaktatutako programaren baten laguntza jaso duten eta 2020an ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanleen banaketa, laguntza eskatzea gomendatzeari buruzko balorazioaren arabera	52
3.10 grafikoa. Ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanleek, ekintzailtzari laguntzeko programa publikoen onuradun izan direnek, 2018-2020 aldian beste pertsona batzuei laguntza eskatzeari buruz egindako balorazioaren bilakaera (1etik 5era bitarteko eskala)	52
4.1 grafikoa. 18 eta 64 urte bitarteko helduen ehunekoa, pandemiaren ondorioz 2020an negozio bat utzi duen norbait ezagutzen duten ala ez kontuan hartuta	57
4.2 grafikoa. 18-64 urte bitarteko helduen ehunekoa, pandemiaren ondorioz 2020an negozio bat hasi duen norbait ezagutzen duen kontuan hartuta	57
4.3 grafikoa. Pandemia baino lehen eta pandemian zehar ekiteko motibazioaren bilakaera. TEAren ehunekoa, Gipuzkoa 2019-2020	58
4.4 grafikoa. Datozen 3 urteetan negozio bat sortzeko asmoa duten 18 eta 64 urte bitarteko helduen ehunekoa eta asmo horretan pandemiak duen eragina, sexuaren arabera	59
4.5 grafikoa. Biztanleria ekintzailearen ehunekoa, negozioak abiaraztean eta martxan jartzean pandemiak duen eraginari buruzko pertzepzioaren arabera	61
4.6 grafikoa. Biztanleria ekintzailearen ehunekoa pandemiaren ondorioz hazteko aukera eta itxaropen berriei buruz duten pertzepzioaren arabera	61
4.7 grafikoa. Biztanleria ekintzailearen ehunekoa gobernuak pandemiari emandako erantzunaren balorazioaren arabera. Ekintzaileen arteko bereizketa prozesuaren fasearen arabera	61

Hitzaurrea

Lerro hauei ekiteko, eskerrak eman nahi dizkiet Euskal Ekintzaitzaren Behatokiari, unibertsitateei eta ikerlan honetan parte hartu duten bederatzi pertsoneri, egindako lanagatik. Bizi dugun garaira egokitutako sustapen politika eraginkorrek abian jarriko badira, diagnostiko sendo eta zehatzak behar dira, eta zalantzarik gabe, GEM Gipuzkoa txostenak erradiografia sakona eskaintzen digu, oso baliotsua lurraldean jarduera ekintzailea bultzatzeko neurriak hartzen jarraitzeko, betiere errealtateari erreparatuta, Gipuzkoatik eta Gipuzkoarako. Izan ere, esparru horretan ez dago guztientzat baliozkoa den formularik.

Erronka ez da makala. Emaitzek erakusten dute 2020an Gipuzkoan izandako ekintzaitza-jarduerak nahiko ondo erantzun diola pandemiaren eragin izugarriari, kuantitatiboki behintzat, eta joera itxaropentsua erakusten du emakumeen ekintzaitzaren indartzea kontsolidatuta edo ezagutza eta laguntza programa instituzionalen erabilera handituta. Baina identifikatu ditu hobetzeko arloak ere, hala nola, arlo berritzailetara bideratutako negozioak dituzten ekintzaileak gutxiago izatea edo COVID-19aren krisiak aukerak antzemateko moduan izan duen eragina eta porrot egiteko beldurra.

Gipuzkoak lortu du ongizate maila handiko gizartea izatea, aberastasunaren banaketa eta desberdinkeria maila txikia dituen ezaugarri, neurri handi batean ekonomia indartsuari eta konpromiso sozialari esker. Sare ekonomiko lehiakor batek bermatzen ditu ongizate eredia, inor atzean uzten ez duen gizartea, eraikitzeke baliatzen ditugun zerbitzu publikoak finantzatzeko aukera ematen ditugun baliabideak. Ildo horretan, ekonomia indartsu baten ezaugarria da dinamikoa izatea. Berritzeko gaitasuna izatea. Eta, zalantzarik gabe, ekintzaitzak eta ekintzaileek ildo horretan egiten duten ekarpenak balio handia du. Funtsezko aktiboa dira etorkizuneko ekonomiaren oinarriak ezartzeko. Jarduera ekintzaileak laguntzen du enpresa berriak prestatzen, enplegua sortzen eta aberastasuna sortzen, eta, gainera gure sare ekonomiko dibertsifikatzeko aukera ematen du, aukera berrietatik abiatuta. Era berean, produktibitatea handitzen laguntzen du, eta konponbide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak bilatzen laguntzen du, bizitzen ari garen trantsizio handiei aurre egin ahal izateko, hala nola digitalari, klima aldaketaren ingurukoari, edo zaintzarekin eta zahartzearekin lotutakoari.

Gure asmoa, beraz, argia da: ahalik eta baldintzarik onenak sortzea ekintzaitzaren kultura hedatzeko, eta enpresa proiektu berriak abian jartzen eta garatzen laguntzea. Gipuzkoan dauden potentzialak, ekiteko gogo eta ezagutza guztiak bideratu behar ditugu, susperraldi ekonomiko eta soziala bizkortzeko, etorkizuneko ekonomia eraikitzeke funtsezko palanka baitira. Horretarako, Aldundiak hainbat arlotan lan egiten du. Laguntzen deialdia indartu dugu ekintzaitza aurreratuan eta barne ekintzaitzaren arreta jarrita, eta hainbat zerga neurri hartu ditugu ekintzaitza proiektuetan inbertsioa bultzatzeko.

Lankidetzako gobernantzari dagokionez, proiektu estrategikoak martxan jartzen jarraitzen dugu Etorkizuna Eraikizen baitan, mugikortasun berriaren, zibersegurtsunaren, zahartzearen, teknologia kuantikoen edo medikuntza pertsonalizatuaren inguruko proiektuak loratzeko hazia ereiten; horrez gain, BIC Gipuzkoarekin lankidetzan ari gara HUB sektorialak garatzeko eta biozientzietako

start up-ak sustatzeko. Halaber, Gaitzen proiektu pilotua jarri dugu abian, Gipuzkoako 6 industria ETEtan barne-ekintzailatza sustatzeko, esperimentazio horretatik enpresa guztiei aplikatu dakiekeen metodologia arrakastatsu bat lortzeko. Eta finantzaketan dihardugu, Elkargiren eskutik baliabideak emanez start up-etarako eta emakumeek bultzatutako enpresetarako, eta kapitalizazioan eta proiektu berritzaileen garapenean lagunduz inbertsio funtsen bitartez.

Egia esan, oso ekosistema indartsua dugu jarduera ekintzailea fase guztietan babesteko eta laguntzeko, ideia sortzen denetik, enpresa sortzen eta bizkortzen den bitartean, sendotzen eta transmititzen den arte. Hori da gure indargune handietako bat, eta ekintzaileek positiboki baloratzen dute azken urteotan egiten ari diren txostenetan, baita honetan ere. Badaude baliabideak eta erakundeekiko hurbiltasuna.

Hortik abiatuta, jarraitu behar dugu hainbat alderdi hobetzen, hala nola, finantzazio egokia bermatuko duen eta proiektuak eskalatzeko aukera emango duen inbertsio industria garatzea. Berrikuntza eredu ireki baterantz ere egin behar dugu aurrera, enpresen arteko eta enpresen eta teknologia zentroen eta unibertsitateen arteko lankidetzan sakonduz. Ekonomia erritmo bizian ari da aurrera egiten, eraldaketa digitala, trantsizio ekologikoa edo sektore berrien gorakada eta hibridazioa bezalako prozesuek eraginda. Lankidetzak funtsezkoa da prozesu hauetan aurkezten zaizkigun jarduerak ekonomiko berriak sortzeko aukera guztiak baliatzeko.

Era berean, ezin dugu ahaztu espiritu ekintzailea jarrera bat dela batez ere, eta, beraz, kulturaren, hezkuntzan eta balioetan eragiten jarraitu behar dugula. Erakunde eta lurralde gisa dugun xedea beti izan da, eta halaxe da oraindik ere, gure gizartea ekintzailea izatea, gure enpresa kulturaren funtsezko ezaugarri gisa. Ekintzaitzaren kultura txikitatik sozializatu behar dugu. Haien ekarpenari balioa ematea, haien abantailak zabaltzea. Porrota ikusteko modua aldatu. Gizarte gero eta likidoagoa eta erosoagoa izateak kultura ekintzailea ahultzeko arriskua dakar. Gure egungo ongizatea gure aurretik egon zirenen ahaleginari eta ikuspegiari zor diogu, eta, orain, guri dagokigu etorkizuneko belaunaldiei ekonomia sendo eta aurreratua uztea.

Jabier Larrañaga

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatua

1.

Sarrera



20 urtez baino gehiagoz, Global Entrepreneurship Monitor (GEM) proiektuari esker, ekintzailtza-jarduerari buruzko datuak bildu ahal izan dira, lurraldeen arteko konparazioa ahalbidetzen duen azterketa bateratu baten esparruan. Denbora horretan guztian, dozenaka herrialdetako hainbat ikertalde bat egin dute urtero proiektuarekin. Kasu batzuetan, parte hartzea iraunkorra izan da eta beste batzuetan puntuala, eta horrek aukera eman du aurten 115 bat herrialdeetan nazio mailako ekintzailtza aztertzekeo datuak biltzeko. COVID19a nagusi izan dugun 2020-21 edizioan, 43 herrialdeetako (Espainia barne) hainbat taldek hartu dute parte.

Espainiaren kasuan, GEM proiektuaren azterketa-esparrua nazioz azpiko mailan ere garatzen da; hala, bildutako datuek aukera ematen dute Euskal Autonomia Erkidegoa estatuko gainerako autonomia-erkidegoekin alderatzeko. Hala ere, EAEn barruan, GEM proiektuaren azterketa-esparrua eskualdez azpiko mailan ere garatzen da, eta Gipuzkoako lurralde historikoa da ekintzailtza-jardueraren diagnostikoa egiteko GEM metodologia erabiltzen duen Espainiako lehenengo probintzietako bat.

EAEn GEM metodologian oinarritutako urteko azterlanak, 2014. urtera arte, autonomia mailan adierazgarriak diren adierazleen bidez ekintzailtza-jarduera aztertzea ahalbidetzen zuten lagin, esfortzu eta baliabideen zuzkiduraren arabera egiten ziren. Hala ere, GEM proiektuaren azterketa-esparrua, Gipuzkoan, 2015. urtean aplikatu zen lehen aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa-ingurunea eta Lurralde Oreka Sailak "Gizarte mailan erantzulea den lurraldea sustatzeko programaren" bidez emandako laguntzari esker. Harrezkero, urtero egiten da GEM metodologian oinarritutako txosten bat, zeinak probintzia mailako ekintzailtza-jardueraren diagnostiko eguneratua ematen duen. Txostenak ekintzaileak azpima-

rratzen ditu, haien pertzepzioak eta motibazioak, negozio-proiektuak eta haien jardueren garapenean eragina duten beste alderdi batzuk. Txosten honek 2020ko irailean eta urrian jasotako datuak aztertzen ditu eta bat egiten du Gipuzkoan 2015etik aurrera GEM metodologian oinarrituta egiten diren ekintzailtza-jardueraren urteko diagnostikoekin.

Txosten honek ematen duen emaitza nagusietako bat Gipuzkoako ekintzailtza-jarduera osoaren (TEA ingelesezko siglak) adierazlea da: 2020an, 18 eta 64 urte arteko biztanleriaren % 4,7 izan zen, hau da, nahiko egonkor mantendu zen 2019. urtearekin (% 4,9) alderatuta. Horrek esan nahi du azken urtean lan egiteko adinean zeuden 100 pertsonatik ia 5ek parte hartzen zuela 42 hilabetetik beherako jarduera zuten eta hasierako fasean zeuden ekintzailtza-negozioak abian jartzen edo jabetzan eta kudeaketan. TEA adierazlearen arabera, lan egiten adinean zeuden biztanleen zifrarekin batera (hau da, ia 436.000 pertsona)¹, baieztatu daitezkeen, laginaren % 0,93ko errore-marjinarekin, 2020an, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hasierako fasean 16.600 eta 24.700 ekintzaile artean zeudela.

1 Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT, www.eustat.es) webgunean eskuragarri dagoen Biztanleen udal-estatistikak adierazten du Gipuzkoan 18 eta 64 urte bitartean 435.678 biztanle zeudela 2020ko urtarrilaren 1ean.

Gainera, txosten honetako emaitzek adierazten dute behera egin duela Lurralde Historikoko ekintzaile finkatuen eta ekintzaile izan daitezkeen kopuruak. Zehazki, 2020an, biztanle helduen % 5,2k 42 hilabete baino gehiagoko jarduerazko negozioa bat zuen eta kudeatzen zuen, eta % 5,6k (2019an, % 8,1ek) negozio berri bat sortu nahi zuen hurrengo hiru urteetan. Halaber, kualitatiboki, joera berritzailea duten negozioak dituzten ekintzaileen kopuruak behera egin duen arren, gora egin du ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboetan jarduten duten negozioen kopuruak. Azkenik, Gipuzkoako biztanleriaren ekintzailetzarekiko balio eta jarreraren pertzepzioa aldatu egin da, espero zen bezala, pandemiaren eragina dela eta.

Ekintzailetza-jarduera oso garrantzitsua da lurraldeen garapenerako; izan ere, ekintzailetzak lagundu egiten du enpresa berriak, enplegua eta aberastasuna sortzen.² Ekintzailetza-jarduera, halaber, dauden enpresek garatu ez dituzten berrikuntzen eta merkatuaren arteko lotura ere bada. Era berean, lagundu egiten du industriaren produktibitatea handiagotzen, lehiakortasuna sartuta, eta lagundu egiten du gizarte gisa ditugun errokei aurre egiteko irtenbide ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak bilatzen. Duen garrantzia dela eta, ekintzailetzarekiko interesa handitu egin da akademikoaren, politika-erabakitzaileen eta beste eragile batzuen artean.

Interes horri erantzuteko, txosten honek, sei-garren urtez jarraian, Gipuzkoako ekintzailetza-jarduerari buruzko erradiografia bat ematen du, zeinak ekintzaileen profila eta euren negozioen ezaugarriak ezagutzeko aukeraz gain, beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetako ekintzailetza-jarduerarekin alderatzeko aukera ematen duen. Diagnostiko eguneratua egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso da berriro ere, Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa-ingurunea Sailaren bitartez.

GEM proiektuaren metodologia 1.1 taulan deskribatzen den kontzeptu-ereduan oinarritzen da. Halaber, 1.2 taulan deskribatzen da nola neuritzen den ekintzailetza-jarduera proiektuaren esparruan. Azkenik, 1.3 taulan deskribatzen dira aztertutako datuak biltzeko erabilitako informazio-iturriak.

Sarrera honen ostean, 2. atalean, Gipuzkoako ekintzailetza-jardueraren adierazle nagusiak aztertzen dira, eta horrek aukera ematen du beste ingurune batzuekin alderatzeko. 3. atalean, hirugarren urtez, Gipuzkoan ekintzailetza-programen ezagutza eta erabilera aztertzen da. 4. atalean, koronabirusak ekintzailetza-jardueran izan duen eragina eta negozio bati ekiteko motibazioak aztertzen dira. Azkenik, 5. atalean, azterlan honen ondorio nagusiak eta inplikazioak ematen dira.

² Espainiako ekintzailetza-jardueraren ekarpen ekonomikoa indartzen duten lan akademikoaren artean honako hauenak aipa daitezke: González-Pernía, Peña-Legazkue, eta Vendrell-Herrero (2012) eta González-Pernía eta Peña-Legazkue (2015)


1.1 koadroa. GEM proiektuaren kontzeptu-eredua

EM proiektua nazioarteko behatoki bat da eta urtero ekintzailtza aztertzen du. 1999an eman zion hasiera bere jarduerari London Business School y Babson Collegeren eskutik, eta jarduera hori mundu, nazio, eskualde eta toki mailako txostenetan islatzen da, behatokia osatzen duten herrialdeetako ikertaldeen partzuergoari esker. Informazio-tresna integralaren ikuskerara horretatik abiatuta, GEM proiektuak ekintzailtza azterketaren gai hauei buruzko datuak ematen ditu:

1. Biztanle heldu aktiboen balioak, pertzepzioak eta jarrera ekintzaileak.
2. Ekintzailtza-jarduera eta haren ezaugarriak.
3. Ekintzailtza-prozesua garatzeko testuingurua.

Behatokiak, GEM proiektuaren laguntzarekin, sortzen dituen txostenak hurrengo irudian deskribatzen den kontzeptu-ereduan oinarritzen dira. Eredu hori etengabe berrikusten eta hobetzen du nazioarteko ikerketa-partzuergo batek. Partzuergo horretan, ekintzailtza-fenomenoa aztertzen duten kide ezagunek komunitate akademikoan hartzen dute parte. Eredu horren bidez, GEM proiektuak ekintzailtza hazkunde ekonomikoan duen zeregina aztertzen du, aintzat hartuta pertsonen negozio-aukerak hautemateko eta ustiatzeko duten trebetasunak ekonomiari laguntzen diola, eta, horrela, enpresa finkatuek egiten duten ekarpena osatzen duela. Gainera, ereduak onartzen du aukerak hautematen eta ustiatzen dituzten pertsonen ez dituztela erabakiak modu isolatuan hartzen, baizik eta berrikuntzari eta ekintzailtza eragiten dien testuinguru espezifiko batean, lurraldeen artean aldatzen den testuinguru batean. Ildo horretan, lurraldeak garrantzia hartzen du ekintzailtza-jardueraren sustapenean; izan ere, negozio-aukeren norbanakoaren pertzepzioa eta horiek gauzatzeko gaitasuna pertsonen jarduten duten testuinguru espezifikoaren arabera neurtzen dira. Bestalde, GEM proiektuak aitortzen du ekintzailtza-jarduera helduen jarduera individual eta independentetik ez ezik (TEA - Total Entrepreneurial Activity izenez ezagutzen dena), dauden enpresetako langileen ekintzailtza-jardueratik ere (EEA - Entrepreneurial Employee Activity) sortzen dela.

KONTZEPTU-EREDUA



Iturria: Singer, S.; Amorós, J. E.; eta Moska, D. (2015).


1.2 koadroa. Ekintzailtza-jarduera neurtzea, GEM proiektuaren arabera

18-64 urte arteko biztanleentzako inkesta (APA ingelesezko siglak) informazio-tresnaren bidez, ekintzailtza-prozesuan biztanleek duten parte hartzea neurtzen duten adierazleak eskuratzeko datuak biltzen dira. Jarraian, ekintzailtza-prozesu deskribatzen da, GEM proiektuaren kontzeptuaren arabera.



1.3 koadroa. GEM proiektuaren informazio-iturriak

GEMen informazio-iturriak dira 18-64 urte arteko biztanleen inkesta, APS (Adult Population Survey) izenekoa, eta adituen inkesta, NES (National Experts Survey) izenekoa. Aurrerago deskribatzen dira. Inkesta horiek GEM proiektuaren jatorrizko tresnak dira eta haien itzulpenek eta tokian tokiko lanek kalitate-kontrol zorrotzak izaten dituzte, datuak bateratzeko eta parte hartzen duten herrialde guztietan bildutako erantzunak eratzeko modukoak direla bermatzeko. Gainera, GEM proiektuak bigarren mailako iturrietara ere jotzen du (besteak beste, Munduko Bankua edo Munduko Foro Ekonomikoa), egindako azterketak osatzeko.



2.

Gipuzkoako ekintzailetza-jardueraren adierazleen diagnostikoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



EEB | OVE

Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
Observatorio Vasco del Emprendimiento

Atal honetan, Gipuzkoako biztanleria helduaren ekintzailtza-
rekiko pertzepzio eta jarrerari buruzko adierazle nagusien diag-
nostikoa eta haien arteko analisi konparatiboa aurkezten dira,
bai eta lurraldeko ekintzailtza-jardueraren mailak eta kalitate
adierazleak ere.

Ekintzailtza- pertzepzioak eta jarrerak Gipuzkoan¹

Ekintzailtza- pertzepzio, balio, jarrera eta kulturaren analisia

Ekintzaileek ekintzailtza-prozesu bakoitzean dituzten portaerak eta ekintzak eratzean, pertzepzioek eta jarrerak berebiziko garrantzia dute. 2.1 taulak Gipuzkoako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ekintzailtza-
rekiko balioen, pertzepzioen eta jarreraren nagusitasuna adierazten du. Gainera, adierazle horien banandu egiten dira ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden edo sartuta ez dauden pertsonak bereizteko.²

GEM metodologian oinarrituta bildutako datuek bi joera dituzte 2020an Gipuzkoan elkarrizketatu ziren 18-64 urte bitarteko biztanleria helduaren ekintzailtza-
rekiko pertzepzio eta jarrerari dagokienez.

Batetik, lehenengo joerak erakusten du behera egin duela nabarmen hurrengo sei hilabeteetan ekiteko aukerak hautematen dituen Gipuzkoako biztanleen ehunekoak. 2020an elkarrizketatu ziren Gipuzkoako biztanleen % 16k baino ez zuen baieztatu aukerak hautematen zituela. Lehenengo joera horrek COVID19aren eragina eta ekonomian zein gizartean izan duen eragina islatzen ditu; izan ere, 2019. urtearekin alderatuta, aukerak hautematen dituen biztanleriaren ehunekoak % 26,5 egin zuen behera. Adierazle horiek elkarrizketatutako Gipuzkoako biztanleria ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen ala ez kontuan hartuta banatzen baditugu, nabarmentzen da ekintzaileen kolektiboak (% 18,1) negozio-aukera gehiago hautematen dituela eze-
kintzaileen kolektiboak baino (% 15,8) baino.

Bestalde, bigarren joerak adierazten du ekintzailtza sustatzen duten balio eta jarrerak ordezkatzeko dituzten adierazle gehienek behera egin zutela aurreko urtearekin alderatuta, epe

1 Sinpletasunagatik, GEM metodologiak, hasieratik, eskala dikotomikoa ("bai" edo "ez") erabiltzen zuen biztanleriaren pertzepzioei buruzko item edo adierazle bakoitza neurtzeko. Hala ere, 2019ko edizioaz geroztik, biztanleriaren pertzepzioak xeheetasun handiagoz ulertzeko, adierazle bakoitzaren erantzunak bost puntuko Likert eskala batean biltzen dira, zeinetan (1) "ez nago batera ados" den; (2) "ez nago oso ados"; (3) "ez nago ados, ez desados"; (4) "ados nago"; eta (5) "erabat ados nago". 2019az aurretiko urteekin nolabaiteko konparazioari eusteko, eskala berrian jasotako erantzunak adierazlearen baieztapenarekiko adostasuna edo desadostasuna adierazten duten bi kategoriatan multzokatzen dira. Hala, "bai" kategoriak (4) eta (5) balioak (hau da, "ados nago" eta "erabat ados nago") dituzten erantzunak adierazten ditu; "ez" kategoriak, berriz, (1) eta (2) balioak (hau da, "ez nago batera ados" eta "ez nago ados") dituzten erantzunak. (3) balioa duten erantzunak baztertu egiten dira dikotomia honetatik, ez ados ez desados daudenak ordezkatzeko baitituzte. Hala, azpialde honetako taula eta grafikoek "bai" kategorian multzokatutako erantzunen portzentajea, multzokatutako erantzun guztiekiko, biltzen dute. Kontziente izan behar dugu bihurteta horrek informazioa galtzea dakarrela, ez baititu aintzat hartzen erantzun neutralak (3). Era berean, kontuz ibili behar da 2019az aurreko eta ondorengo denboraanalisia egitean; izan ere, adierazleek ez dituzte neurketaeskala bera erabiltzen epe bakoitzean, datuen bilketa egiten hasi zenetik.

2 Bereizketa horri esker, elkarrizketatutako 18-64 urteko gipuzkoar biztanleria bereiz daiteke, hasi direnen eta oraindik hasi ez direnen pertzepzioak identifikatzeko. Ildo horretan, ekintzailtza-prozesu batean sartuta dauden pertsonak honako hauek dira: inkestari erantzun diotenak eta hasierako fasean dagoen enpresa bat (TEA) sortu dutela edo enpresa finkatu bati lotuta daudela adierazi dutenak. Hori dela eta, honako hauek dira sartuta ez daudenak: lehen aipatutako ekintzailtza-prozesuko faseren batekin lotuta daudenik adierazi ez dutenak.

Adierazlea	18-64 urte bitarteko biztanleen %		
	Sartuta daudenak	Sartuta ez daudenak	Guztira
Sustatu egiten duten balioak eta jarrerak			
Aukerak hautematea: hurrengo sei hilabeteetan ekiteko aukerak daudela hautematen du	% 18,1	% 15,8	% 16,0
Ekiteko ezagutzak eta gaitasunak: ekiteko ezagutza eta gaitasun guztiak dituela hautematen du	% 76,9	% 45,4	% 48,6
Talentu berritzailea*: besteek berritzaile gisa ikusten dutela hautematen du	% 67,5	% 54,4	% 55,7
Epe luzerako ikuspegia*: bere erabakiak karrera-plan baten parte direla hautematen du	% 77,5	% 54,6	% 70,6
Erreferentziako ereduak: azken bi urtetan ekin duen norbait ezagutzen du	% 47,3	% 32,4	% 33,9
Mugatu egiten duten balioak eta jarrerak			
Porrotari beldurra: Porrot egiteko beldurragatik ez lukeela ekingo hautematen du	% 58,1	% 67,0	% 66,2
Aukerak hautemateko ezintasuna*: Hautematen du, aditua izan arren, nekez ikusiko dituela aukerak	% 50,2	% 55,9	% 55,3
Aukerak ustiatzeko ezintasuna*: Hautematen du, nahiz eta aukera bat ikusi, nekez hartuko duela haiek gauzatzeko ekimena	% 58,9	% 65,0	% 64,4

2.1 taula. Ekintzailletzarekiko balioen eta jarreraren autopertzepzioa Gipuzkoan. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa. **Oharra:** * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019az geroztik neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

luzeko ikuspegiak (euren erabakiak karrera-plan baten parte direlako pertzepzioa) izan ezik. Azken adierazle horrek % 2,5 egin du gora aurreko urtearekiko.

Ekintzailletza sustatzen duten faktoreei dagokienez, azpimarra dezakegu 2020an Gipuzkoan inkestatutako pertsonen % 48,6k hautematen dutela ekiteko ezagutzak eta gaitasunak dituztela (ekintzailletza-prozesuren batean sartuta dauden pertsonen % 76,9k eta sartuta ez dauden % 45,4k). Gainera, % 55,7k hautematen dute gainerakoek ekintzaile gisa ikusten dituztela (ekintzailletza-prozesuren batean sartuta dauden pertsonen % 67,5ek eta sartuta ez dauden % 54,4k).

Ekintzailletza mugatzen duten balio eta jarrerei dagokienez, horiek nabarmentzeko joera handia dago. 2020an Gipuzkoan elkarrizketatu ziren eta porrot egiteari dioten beldurragatik ekin ez diotela hautematen duten pertsonen ehunekoa hazi egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2019an % 53,9k eta 2020an % 66,2k). Adierazle

hori banantzean, ekintzailletza-prozesuan sartuta dauden % 58,1ek eta ekintzailletza-prozesuan sartuta ez dauden % 67k beldurra diote porrot egiteari.

Aukerak hauteman eta ustiatzeko aukerei dagokienez, Gipuzkoan elkarrizketatutako biztanleen % 51ek hautematen dute, adituak izan arren, nekez ikusten dituztela aukerak; % 53,4k hautematen dute, nahiz eta aukera bat ikusi, nekez hartuko dutela haiek garatzeko ekimena.

Azalpen onargarri bat lotuta egon liteke ekintzailletza-asmoaren oinarritzko osagaiekin: ekiteko nahia (*desirability* ingelesez) eta ekiteko gai sentitzea (*feasibility* ingelesez).³ Batetik, lehenengo joerak erakusten du Gipuzkoako biztanle gehienek ez dutela ekiteko interesik. Bestetik, bigarren joerak baliozkotzat jotzen du Gipuzkoako biztanle gehienek ekiteko gaitasuna dutelako pertzepzioa. Hortaz, bi osagaietan prebalentziarik ez dagoenez, zaila egiten da pertsona batek ekiteko asmoa ekiteko jardura bihurtzea. Gainera, ezin dugu ahaztu testuinguruaren baldin-

3 Xehetasun handiagoa naiz izanez gero, kontsultatu Guerrero, M., Rialp, J., eta Urbano, D. (2008).

Indicador	Gipuzkoako 18-64 urte bitarteko biztanleen %		
	Sartuta daudenak	Sartuta ez daudenak	Guztira
Ekitatea biziestandarretan: biztanle gehienek nahiago dute ekitatea egotea biziestandarretan	% 75,8	% 73,0	% 73,3
Lan-aukera ona: biztanle gehienek ustez ekitea lan-aukera ona da	% 60,5	% 59,2	% 59,3
Estatus sozial eta ekonomiko ona: Biztanle gehienek ustez arrakastaz ekiteak estatu sozial eta ekonomiko ona ematen du	% 53,1	% 63,2	% 62,2
Ekintzailtza komunikabideetan hedatzea komunikabideetan maiz hedatzen dira ekintzaile arrakastatsuei buruzko berriak	% 56,3	% 55,8	% 55,8
Negozio bati hasiera emateko erraztasuna*: erraza da negozio bati bizi zaren lekuan bertan ekitea	% 39,5	% 40,5	% 40,4
Ekintzailtza sozialerako ohitura*: maiz ikusten dira misio soziala duten enpresa edo negozioak	% 55,9	% 51,2	% 51,7

2.2 taula. Gipuzkoan lurraldearen ekintzailtza-erakundearen kulturari buruzko pertzepzioak. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa. **Oharra:** * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019az geroztik neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).



tzek biztanleen pertzepzioan duten eragina (gai horiek aurrerago aztertuko dira sakonkiago).

2.2 taulak Gipuzkoako 18-64 urte arteko biztanle helduek lurraldearen ekintzailtza-erakundearen kulturari buruz dituzten pertzepzioak erakusten ditu. Gipuzkoan elkarrizketatutako biztanle heldu guztiak aintzat hartuta, Gipuzkoako biztanleen % 73,3 ados daude biziestandarretan ekitatea dagoela esaten denean. Era berean, biztanleen % 59,3k uste dute ekintzailtza lan-aukera ona dela, % 62,2k uste dute ekintzailtza-arrakastak estatus sozial eta ekonomiko ona ematen duela, eta % 55,8k uste dute komunikabideek ekintzailtza-kasu arrakastatsuek hedatzen dituztela. Aldeko joera horiek egon arren, Gipuzkoako biztanleen % 40,4k soilik uste dute erraza dela negozio bati bizi diren lekuan bertan ekitea.

Pertzepzio horietan ez da alde esanguratsurik adierazten ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden eta sartuta ez dauden pertsonak banatuz gero, honako adierazle hauetan izan ezik: estatus sozial eta ekonomiko eta enpresen misio soziala. Lehenengoari erreparatuta, aipagarria da ekintzailtza-prozesuaren batean sartuta dauden pertsonen ikuspegi ezkorragoa dutela sartuta ez daudenak baino ekintzailtza-arra-

kastak estatus sozial eta ekonomiko ona ematen duela adierazten duen adierazlean: sartuta dauden pertsonen % 53,10ek baino ez du uste eta sartuta ez dauden % 63,20k. Bestalde, eta bigarren adierazleari erreparatuta, sartuta dauden pertsonen % 55,9k eta sartuta ez dauden % 51,2k uste dute, maiz, enpresek edo negozioek misio soziala dutela.

2.1 grafikoak Gipuzkoan ekintzailtza-erakundearen bilakaera aurkezten du. 2019. urtearekin erkatuta, ikusten da azpiatal honetan aztertutako adierazle guztiek behera egin dutela, salbu eta porrotari beldurra hautematen duten biztanleen ehunekoari buruzko adierazleak, nabarmen egin baitzuen gora eta maximo historikora iritsi (% 66,2). Adierazle guztien artean 2020an negozio bati ekiteko aukerak hautematen dituzten biztanleen ehunekoa da jaitsiera handiena izan duena; izan ere, 26 ehuneko baino gehiago jaitsi zituen (% 42,4tik % 16ra). Gainerako adierazle gehienak jaitsiera arinagoak izan dituzte eta horrek esan nahi du denboran bilakaera bat izan dela, eta biztanleriaren ekintzailtza-erakundearen pertzepzio eta jarrerei buruzko egoera, oro har, kaltegarriagoa dela 2020an 2019an.



2.1 grafikoa. Ekintzaitzetzarekiko balioen pertzepzioen, Ekintzaitzeta-jarreraren eta ekintzaitzetzarekiko kulturaren pertzepzioaren bilakaera. Gipuzkoa 2015-2020.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2015-2020).

Ekintzaitzetzarekiko pertzepzio, balio, jarrera eta kulturaren analisisa genero-ikuspegia aintzat hartuta

2.3 taulak Gipuzkoako 18-64 urte bitarteko biztanleriaren ekintzaitzetzarekiko balioen eta jarreraren pertzepzioak adierazten ditu genero-ikuspegia aintzat hartuta.

Ekintzaitzeta-prozesua sustatzen duten balio eta jarrerari dagokienez, eta aintzat hartuta soilik ekintzaitzeta-prozesuren batean sartuta

dauden biztanleak, datuek adierazten dute gizon ekintzaileek aukera gehiago hautematen dituztela emakumeek baino (% 22,5 eta % 13,7 hurrenez hurren) eta, era berean, ekintzaile gehiago ezagutzen dituzte emakumeek baino (% 54,3 eta % 40,5 hurrenez hurren). Gipuzkoan ekintzaitzeta-prozesuren batean sartuta dauden emakumeek, ordea, hautematen dute ekiteko ezagutza eta gaitasun handiagoak dituztela gizonen baino (% 78,8 eta % 75 hurrenez hurren), gainerakoek berritzaile gisa ikusten dituztela (emakumeen % 69,3k eta gizonen % 65,9k), eta

	Sartuta daudenak			Sartuta ez daudenak		
	Gizonak	Emakumeak	Total	Gizonak	Emakumeak	Total
Sustatu egiten duten balioak eta jarrerak						
Aukerak hautematea	% 22,5	% 13,7	% 18,1	% 18,2	% 13,3	% 15,8
Ekiteko ezagutzak eta gaitasunak	% 75,0	% 78,8	% 76,9	% 49,6	% 41,1	% 45,4
Talentu berritzailea*	% 65,9	% 69,3	% 67,5	% 57,7	% 50,9	% 54,4
Epe luzeko ikuspegia*	% 75,3	% 79,6	% 77,5	% 73,2	% 66,3	% 69,8
Erreferentziazko ereduak	% 54,3	% 40,5	% 47,3	% 36,3	% 28,4	% 32,4
Porrotari beldurra						
Aukerak hautemateko ezintasuna*	% 54,4	% 46,2	% 50,2	% 59,0	% 52,7	% 55,9
Aukerak ustiatzeko ezintasuna*	% 62,6	% 55,3	% 58,9	% 65,8	% 64,2	% 65,0

2.3 taula. Ekintzaitzetzarekiko balioen eta jarreraren pertzepzioak Gipuzkoan, genero-ikuspegia aintzat hartuta. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa. **Oharra:** * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019an neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. *Iturria:* GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

epe luzeko ikuspegi handiagoa dutela (emakumeen % 79,6k eta gizonen % 75,3k).

Inongo ekintzailtza-prozesutan sartuta ez dauden biztanleei dagokienez, emakumeei dagozkien adierazle guztiek datu ezkorragoak ematen dituzte gizonen dagozkien adierazleek baino. Gizartearen ekintzailtza-jokabidea muga dezaketen balio eta jarrerak aintzat hartuta, Gipuzkoako emakume ekintzaile gehiagok hautematen dute beldurra diotela porrotari gizon ekintzaileek baino (% 62,4k eta % 53,7k hurrenez hurren). Bestalde, gizon ekintzaileen % 54,4k hautematen dute aukerak aztertzeke ezintasuna dutela eta % 62,2k aukerak ustiatzeke ezintasuna dutela. Horren kontrara, emakume ekintzaileen % 46,2k hautematen dute aukerak aztertzeke ezintasuna dutela eta % 55,3k aukerak ustiatzeke ezintasuna dutela. Ekintzailtza-prozesuan sartuta ez dagoen biztanleria aztertzen badugu, patroia ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleriaren bera da, baina ehuneko altuxea-goekin: emakumeek hautematen gizonen baino beldur handiagoa diotela porrotari (emakumeen % 67,9k eta gizonen % 66,2k) baina hautematen dute ezintasun txikiagoa dutela aukerak aztertu eta ustiatzeke (emakumeen % 65,2k eta gizonen % 59,0k aztertzeke ezintasunari dagokionez, eta emakumeen % 64,2k eta gizonen % 65,8k aukerak ustiatzeke ezintasunari dagokionez).

2.4 taulak Gipuzkoan lurraldearen ekintzailtza-erakiko kulturari buruzko pertzepzioak erakusten ditu, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

Gipuzkoan ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleria aintzat hartuta, joera aldatu egiten da aurreko urtearekin alderatuta: emakume ekintzaileek pertzepzio hobekak dituzte gizon ekintzaileek baino bizi-estandarren ekitateari buruz (emakumeen % 77,6k eta gizonen % 74k), ekintzaile arrakastatsuen estatu sozial eta ekonomikoari buruz (emakumeen % 56,8k eta gizonen % 49,3k), komunikabideetan ekintzaile arrakastatsuei buruzko berri buruz (emakumeen % 59,6k eta gizonen % 52,8k), eta ekintzailtza-prozesuen misio sozialei buruz (emakumeen % 57,9k eta gizonen % 54k). Hala ere, ekintzailtza lan-aukera ona delako pertzepzioa berdintsua da (emakumeen % 60,3k eta gizonen % 60,8k), nahiz eta emakumeen erraztasun txikiagoa hautematen duten negozio bati ekiteko gizonen baino (emakumeen % 33,4k eta gizonen % 45,6k).

Gipuzkoan ekintzailtza-prozesuan sartuta ez dagoen biztanleria aintzat hartuta, gizonen ehu-eko altuagoak dituzte Gipuzkoan lurraldearen ekintzailtza-erakiko kulturari buruzko adierazle gehienetan.

Beste ingurune batzuekiko konparazioa

2.5 taulak konparatu egiten ditu, batetik, Gipuzkoako biztanle helduen ekintzailtza-erakiko balio eta jarreraren adierazleak eta, bestetik, Euskadiko, Espainiako biztanle helduetan behatutako adierazle parekideak eta 2020ko edizioan parte hartu zuten Europar Batasuneko (EB28) herrialdeetako batez bestekoa.

Adierazlea	Sartuta daudenak			Sartuta ez daudenak		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ekitatea bizi-estandarretan	% 74,0	% 77,6	% 75,8	% 73,1	% 72,9	% 73,0
Lan-aukera ona	% 60,8	% 60,3	% 60,5	% 61,6	% 56,7	% 59,2
Estatus sozial eta ekonomiko ona	% 49,3	% 56,8	% 53,1	% 64,8	% 61,4	% 63,2
Ekintzailtza komunikabideetan hedatzea	% 52,8	% 59,6	% 56,3	% 58,5	% 52,9	% 55,8
Negozio bati hasiera emateko erraztasuna*	% 45,6	% 33,4	% 39,5	% 41,0	% 40,1	% 40,5
Ekintzailtza sozialerako ohitura*	% 54,0	% 57,9	% 55,9	% 53,1	% 49,2	% 51,2

2.4 taula. Gipuzkoan lurraldearen ekintzailtza-erakiko kulturari buruzko pertzepzioak, genero-ikuspegia aintzat hartuta. 2020an inkestatutako 1864 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoak. **Oharra:** * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019az geroztik neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Adierazlea	Gipuzkoa	Benchmarking		
		EB28 herrialdeetako batez bestekoa **	Espainia	EAE
Sustatu egiten duten balioak eta jarrerak				
Aukerak hautematea	% 16,0	% 39,6	% 16,5	% 16,5
Ekiteko ezagutzak eta gaitasunak	% 48,6	% 55,1	% 51,9	% 50,0
Talentu berritzailea*	% 55,7	% 65,8	% 60,6	% 58,6
Epe luzeko ikuspegia*	% 70,6	% 70,8	% 71,5	% 72,7
Erreferentziazko ereduak	% 33,9	% 51,3	% 37,3	% 35,0
Mugatu egiten duten balioak eta jarrerak				
Porrotari beldurra	% 66,2	% 47,5	% 64,0	% 65,6
Aukerak hautemateko ezintasuna*	% 55,3	% 60,3	% 55,8	% 54,8
Aukerak ustiatzeko ezintasuna*	% 64,4	% 61,8	% 62,9	% 61,8

2.5 taula. Ekintzailtzarekiko balio eta jarrerei buruzko pertzepzioak. Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAEko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestaturako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa.

Oharra: * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019az geroztik neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. ** Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgoko, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).

Ekintzailtza sustatzen duten balio eta jarrerei dagokienez, ikusten dugu aukerak hautematea adierazleak beharakada nabarmena izan duela, COVID19aren krisiaren aurreko urteekin alderatuta, eremu geografiko guztietan; Gipuzkoako batez bestekoa (% 16,0) EAEko eta Espainiako batez bestekoaren azpitik dago zertxobait (bi kasuetan % 16,5) eta EB28ko herrialdeetako batez bestekoaren (% 39,6) oso azpitik. Ekintzailtza sustatzen duten balio eta jarrerei buruzko gainerako adierazleetan, Gipuzkoaren egoera EAEn eta Espainian antzemandako egoeraren eta EB28ko batez bestekoaren azpitik dago. Egiaztatu dugu Gipuzkoan ekiteko ezagutzak eta gaitasunak izateari buruzko pertzepzioa % 48,6koa dela eta gainerakoetan handiagoa dela: % 50ekoa EAEn, % 51,9koa Espainian eta % 55,1koa EB28n. Era berean, gainerakoek berritzaile gisa ikusten dutela hautematen duten gipuzkoarren ehunekoa % 55,7 da, EAEn % 58,6, Espainian % 60,6 eta EB28ko batez bestekoan % 65,8. Euren erabakiak karrera-plan baten parte direlako pertzepzioari dagokionez, ikusten dugu gipuzkoarren ehunekoa (% 70,6) zertxobait txikiagoa dela EB28ko batez bestekoa (% 70,8), Espainiako (% 71,5) eta EAEko (% 72,7) baino. Amaitzeko, erreferentziazko ereduak errepara-

tuta, hau da, biztanleek azken bi urteetan ekin duen beste pertsonarik ezagutzen ote duten aztertuta, ikusten dugu Gipuzkoak duela ehuneko txikiena (% 33,9), EAEk (% 35,0) eta Espainiak (% 37,3) baino txikiagoa eta EB28ko batez bestekoa baino askoz txikiagoa (% 51,3).

Ekintzailtza mugatzen duten balio eta jarrerei dagokienez, ikusten dugu adierazle nagusia (porrotari beldurra) zertxobait handiagoa dela Gipuzkoan (% 66,2) Espainian (% 64) eta EAEn (% 65,6) baino, baina askoz ere handiagoa EB28ko batez bestekoa baino (% 47,5). Gauza bera gertatzen da negozio-aukerak ustiatzeko ezintasuna aztertuz gero, Gipuzkoako batez bestekoa (% 64,4) EAEko eta EB28ko batez bestekoaren (% 61,8) bietan eta Espainiakoaren (% 62,9) gainetik dago. Aukerak hautemateko ezintasuna aztertuta, Gipuzkoako batez bestekoak (% 55,3) EAEko batez bestekoaren (% 54,8) gainetik daude, baina Espainiakoaren (% 55,8) eta EB28koaren (% 60,3) azpitik.

Datu horiek aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu Gipuzkoako biztanleriak ekintzailtzarekiko balio eta jarrerei buruz duen pertzepzioa ez dela EAEko eta Espainiako biztanleriaren per-

tzepzioa bezain baikorra, bereziki GEM proiektuan parte hartu zuten EB28ko herrialdeetako batez bestekoarekin alderatuta.

2.6 taulak, 2020ko edizioa, Gipuzkoan, Euskadin, Espainian eta UE28ko herrialdeetan ekintzailtzarekiko kulturari buruz dagoen pertzepzioaren batez bestekoen azterketa konparatiboa (benchmarking) aurkezten du.

Alde batetik, aldeko bi joera ikusten dira Gipuzkoan ekintzailtzarekiko kulturaren pertzepzioetan. Lehenik eta behin, biziestandarretan ekitatea egoteari buruzko pertzepzioa aintzat hartuta, gipuzkoarren pertzepzioa (% 73,3) handiagoa da EAekoena (% 72,2), Espainiakoena (% 67,7) eta EB28ko herrialdeetako batez bestekoa (% 61,9) baino. Bigarrenik, eta aurreko joerari dagokionez, Gipuzkoako biztanleek gizartearazoak konpontzeko eginkizuna duten enpresak egoteari buruz duten pertzepzioa (% 51,7) EAeko (% 47,1), Espainiako (% 42,0) eta EB28ko herrialdeen (% 31,7) pertzepzioaren gainetik dago.

Bestalde, ikusten da gainerako joerak ez direla hain aldekoak. Lehenik eta behin, Gipuzkoan ekintzailtza lan-aukera ona izateari buruzko pertzepzioa (% 59,3) Espainiako (% 56,7) baino handiagoa da, baina zertxobait txikiagoa EAE-

ko batez bestekoa (% 59,6) eta EB28ko batez bestekoa (% 60,5) baino. Bigarrenik, arrakastaz ekiteak estatus sozial eta ekonomiko ona ematen duelako pertzepzioa aintzat hartuta, ikusten dugu Gipuzkoan pertzepzio horrekin ados dauden biztanleen ehunekoa (% 62,2) apur bat handiagoa dela Espainian (% 61,1) baino, baina txikiagoa EAEn (% 62,7) eta EB218ko batez bestekoa (% 69,4) baino. Hirugarrenik, Gipuzkoan komunikabideetan ekintzailtzari buruzko berriak hedatzen direla hautematen duten biztanleen ehunekoa (% 55,8) zertxobait handiagoa da EAeko (% 55,2) eta Espainiako (% 50,2) baino, baina txikiagoa EB28 herrialdeetan (% 60,2) baino. Laugarrenik, eta atal hau amaitzeko, Gipuzkoan negozio bati ekiteko erraztasunak hautematen dituzten biztanleen ehunekoa (% 40,4) eta EAeko (% 40,8) antzekoak dira, baina Espainiako (% 34,6) baino handiagoa da eta EB28ko herrialdeetako batez bestekoa (% 53,2) baino txikiagoa.

2.2 grafikoak osatu egiten du Gipuzkoako konparazioazterketa edo benchmarkinga, dirusarrerera handiko herrialdeetako adierazleei eta Espainiako autonomia-erkidegoetako adierazleei dagokienez. Zehazki, honako bi ondorio hauek ditugu:

a. Ekintzailtza sustatzen duten balio eta ja-

Adierazlea	Gipuzkoa	Benchmarking		
		EB28 herrialdeetako batez besteko**	Espainia	EAE
Ekitatea biziestandarretan	% 73,3	% 61,9	% 67,7	% 72,2
Lanaukera ona	% 59,3	% 60,5	% 56,7	% 59,6
Estatus sozial eta ekonomiko ona	% 62,2	% 69,4	% 61,1	% 62,7
Ekintzailtza komunikabideetan hedatzea	% 55,8	% 60,2	% 50,2	% 55,2
Negozio bati hasiera emateko erraztasuna*	% 40,4	% 53,2	% 34,6	% 40,8
Ekintzailtza sozialerako ohitura*	% 51,7	% 31,7	% 42,0	% 47,1

2.6 taula. Ekintzailtzarekiko kulturaren pertzepzioa. Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAeko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestatutako 18-64 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa.


Oharra: * GEM metodologiaren barruko pertzepzio berriak. 2019an neurtu dira, baina ez aurreko urteetan. ** Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrerera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021)

rrerei buruz Gipuzkoako biztanleek duten pertzepzioaren batez bestekoak Europako (EU28), estatuko eta EAEko batez bestekoaren azpitik daude.


- b. Ekintzailtza mugatzen duten balio eta jarrerei buruzko pertzepzioari dagokionez, aipatzekoa da Gipuzkoan Europan baino askoz ere handiagoa dela porrotari beldurra izateari buruzko pertzepzioa eta estatuko eta Euskadiko batez bestekoa baino apur bat handiagoa. Hala ere, ez da alde handirik hautematen aztertutako beste bi pertzepzioetan. Aukerak ustiatzeko ezintasunari buruzko pertzepzioa, halaber, handiagoa da gainerako batez bestekoak (EB28, Espainia eta EAE) baino; aukerak hautemateko ezintasunari buruzko pertzepzioa, ordea, txikiagoa da Europako, estatuko eta EAEko batez bestekoa baino.

Gipuzkoako ekintzaitza jardueraren 2020-2021eko diagnostikoa



2.2 grafikoa. Gipuzkoako biztanleriaren ekintzaitzazetikiko balio eta jarrerei buruzko pertzepzioa 2020an, dirusarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia-erkidegoekin alderatuta. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.


Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).



2.2 grafikoa (jarraipena). Gipuzkoako biztanleriaren ekintzaitetzarekiko balio eta jarrereri buruzko pertzepzioa 2020an, dirusarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia-erkidegoekin alderatuta. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.


Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).

Gipuzkoako ekintzailtza jardueraren 2020-2021eko diagnostikoa



2.2 grafikoa (jarraipena). Gipuzkoako biztanleriaren ekintzailtzarekiko balio eta jarrerari buruzko pertzepzioa 2020an, dirusarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia-erkidegoekin alderatuta. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).



2.2 grafikoa (jarraipena). Gipuzkoako biztanleriaren ekintzailtza-erikiko balio eta jarrerei buruzko pertzepzioa 2020an, dirusarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia-erkidegoekin alderatuta. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).

Ekintzailtza-prozesua Gipuzkoan

Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak

GEM metodologiak lurralde bateko ekintzailtza-prozesuaren erradiografia bat ematen du, modu bateratuan, beste leku batzuekin alderatu ahal izateko. 2.3 grafikoan, 2020. urtean Gipuzkoan ekintzailtza-prozesuaren etapetan izan-

dako jarduera-mailak ikus ditzakegu. COVID19ak eragindako pandemiaren ondorioz, aldaketa nabarmen batzuk ikusten dira aurreko urtearekin alderatuta. Horixe da ekintzaile izan daitezkeen kasua (datozen hiru urteetan ekiteko asmoa dutenak): haien 2020an adierazleak 2,5 puntu egin du behera aurreko urtearekin alderatuta eta gipuzkoarren % 5,6k laster ekiteko asmoa duela adierazten du.



2.3 grafikoa. Ekintzailtza-jardueraren eta enpresa-dinamikaren emaitzak. Gipuzkoa 2020.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Bestalde, TEA indizeak¹ adierazten du Gipuzkoako biztanleen % 4,7, 2002an, hiru urte eta erdiko Ekintzailtza-jardueretan sartuta egon zela. Datu horrek behera egin du zertxobait (% 4,9) 2019arekin alderatuta. Honako hauek osatzen dute TEA: ekintzaile hasi berrien ehunekoak (azken hiru hilabeteetan ekin dutenak) eta ekintzaile berrien ehunekoak (342 hilabete bitarteko enpresak dituztenak). Ekintzaile hasi berrien ehunekoak aurreko urtearen datu bera (% 1,9) erregistratu du; ekintzaile berrien erregistroak

(% 2,8), ordea, behera egin du apur bat. Enpresa finkatuetan (3,5 urte baino gehiago dituztenak) sartuta dauden pertsonen ehunekoak ere ehuneko 0,7 puntuko jaitsiera izan du, eta biztanleriaren % 5,2ren inplikazioa erregistratu da. Bestalde, biztanleen % 0,6k adierazi dute lehendik zeuden enpresetan barne-ekintzailtza-jarduerak egin dituztela, eta datu horrek ehuneko 1,2 puntuko jaitsiera nabarmena izan du 2019. urtearekin alderatuta. Ustekabean, badirudi pandemiak geldiarazi egin duela Gipuzkoan jar-

¹ Ekintzailtza-jarduera osoa (TEA ingelesezko siglak) indizeak bere baitan hartzen du negozio sortu berriak edo negozio berriak (hau da, hasierako fasean dauden negozioak) dituzten pertsonen jarduerak.

Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Ekintzaileak izan daitezkeenak	% 2,5	% 3,9	% 4,4	% 5,0	% 8,1	% 5,6
TEA	% 5,1	% 3,7	% 5,3	% 4,8	% 4,9	% 4,7
Ekimen hasi berriak	% 1,3	% 1,9	% 2,0	% 2,5	% 1,9	% 1,9
Ekimen berriak	% 3,8	% 1,9	% 3,4	% 2,3	% 3,1	% 2,8
Finkatuak	% 11,0	% 6,0	% 5,6	% 5,8	% 6,0	% 5,2
Uzteak	% 0,9	% 0,8	% 1,9	% 2,5	% 1,6	% 0,5
Itxierak	% 0,6	% 0,6	% 1,1	% 1,8	% 0,9	% 0,4
EEA(barne-ekintzailtza)	% 0,4	% 3,0	% 1,4	% 1,7	% 1,8	0,6%

2.7 taula. Ekintzailtza-jardueraren eta enpresa-dinamikaren bilakaera. Gipuzkoa 2015-2020.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2015-2020).

duerauzteen kopurua (itxieragatik edo eskualdatzeagatik). Kopuru horrek 1,1 puntuko jaitsiera izan du, biztanleriaren % 0,5ekoa. Hala ere, datu horrek adieraz dezake ezen, pandemiaren ondorioz 2020an jasandako egoera gorabehera, eragindako negozioak zituzten ekintzaile askok jarduera eten zutela, behin betiko utzi gabe.

2.7 taulak 2015-2020 aldian Gipuzkoako ekintzailtza-prozesuaren adierazle nagusien bilakaera eta dinamismoa erakusten du.

Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren bilakaeraren azterketak bost joera nabarmen adierazten ditu:

- Gipuzkoan 18-64 urte bitarteko helduen ekiteko asmoak apurkaapurka gora egin du urteetan zehar, edizio honetara arte, zeinetan pandemiaren ondoriozkoa izan litekeen beherakada nabarmena ikusten den.
- Ekintzailtza-jardueraren tasak Gipuzkoan (% 4,7) COVID19ari eusten dio. Enpresa sortu berrietan (0 eta 3 hilabete bitartekoak) sartuta dauden pertsonen ehunekoak egonkor jarraitzen du aurreko urtearekin alderatuta; enpresa berrietan (3 hilabete eta 3,5 urte bitartekoak) sartuta dauden biztanleen kopuruak, ordea, beherakada txiki bat izan du.

c. Gipuzkoan enpresa finkatuak dituzten pertsonen ehunekoak (% 5,2) ez du aldaketa handirik izan 2016az geroztik; baina, pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, ekitaldi honetan beherakada handiagoa izan da (0,7 puntu) aurreko urteetan baino.

d. Ekintzailtza-jarduera bat utzi behar izan duten Gipuzkoako biztanleen kopuruaren 1,1 puntuko jaitsiera nabarmen izan da, izan enpresa itxi egin dutelako, izan eskualdatu egin dutelako. Eraitza horrek iradokitzen du erakunde publikoek laguntza eman ahal izan dietela enpresa finkatuei, eta itxiera geldiaraztea lortu dela, egoera gorabehera.

e. Koronabirusaren krisi ekonomikoak eragin negatiboa du, Gipuzkoako biztanleen artean, barne-ekintzailtzako ekimenen garapenean; izan ere, 1,2 puntuko jaitsiera nabarmena izan du, eta 2015eko mailan kokatu da.

Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak genero-ikuspegia aintzat hartuta

2.8 taulak ekintzailtza-prozesuaren adierazleen desagregazioa erakusten du, ekin duen pertsonaren generoaren arabera. 2020an, lehenengo aldiz, negozio finkatuen buru diren emakumeen kopurua handiagoa da gizonena baino. Ekintzailtza-prozesuaren gainerako etapetan ez dago

Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak	Gizonak	Emakumeak
Ekintzaileak izan daitezkeenak	60,3%	39,7%
TEA	52,3%	47,7%
Ekimen hasi berriak	53,5%	46,5%
Ekimen berriak	51,5%	48,5%
Finkatuak	45,8%	54,2%
Uzteak	36,1%	63,9%
Itxierak	37,2%	62,8%
EEA (barne-ekintzailtza)	74,9%	25,1%

2.8 taula. Ekintzailtza-prozesuaren adierazleen banaketa genero-ikuspegia aintzat hartuta, Gipuzkoa 2020.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Adierazlea	Gipuzkoa	Benchmarking		
		EB28 herrialdeetako batez bestekoa*	Espainia	EAE
Ekintzailtza-prozesua				
Ekintzaileak izan daitezkeenak	% 5,6	% 14,1	% 7,0	% 6,5
TEA	% 4,7	% 8,1	% 5,2	% 5,2
Sortu berriak	% 1,9	% 5,0	% 2,4	% 2,2
Berriak	% 2,8	% 3,2	% 2,9	% 3,1
Finkatuak	% 5,2	% 7,2	% 6,7	% 5,8
Uzteak	% 0,5	% 3,0	% 1,3	% 1,0
Itxierak	% 0,4	% 2,1	% 1,0	% 0,7
Jarraitzen dutenak	% 0,1	% 0,9	% 0,3	% 0,3
EEA (barne-ekintzailtza)	% 0,6	% 3,8	% 0,8	% 0,4
TEA x géneroa				
Gizonezkoa	% 4,9	% 10,1	% 5,6	% 5,5
Emakumezkoa	% 4,6	% 6,0	% 4,8	% 5,0

2.9 taula. Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak Gipuzkoaren eta Europar Batasuneko herrialdeen, Espainiako eta EAEko batez bestekoaren arteko konparazioa. 2020an inkestatutako 1864 urte bitarteko biztanle helduen ehunekoa. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Suitza, Erresuma Batua, Polonia, Alemania, Portugal, Luxenburgo, Irlanda, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).

aldaketa nabarmenik: gizonen presentzia handiagoa da, generoaren aldetik alde handiagoa dago ekiteko asmoan (gizonen % 60,3 eta emakumeen % 39,7) eta barne-ekintzailtzan (gizonen % 74,9 eta emakumeen % 25,1). Aurreko urteetan bezala, emakume gehiagok utzi edo ixten dute enpresa.


kadin, Espainian eta Europako herrialdeetan el-karrizketatutako biztanleekin alderatuta.

Aurreko taulatik honako azterketa konparatibo hau ondorioztatzen da, eta honako joera hauek nabarmentzen dira:

Beste ingurune batzuekiko konparazioa

2.9 taulak eta 2.4 grafikoak Gipuzkoako 18-64 urte bitarteko biztanleen ekintzailtza-prozesuaren azterketa konparatiboak erakusten dituzte, Eus-

- Datozen hiru urteetan ekiteko asmoa duten 18 eta 64 urte bitarteko Gipuzkoako biztanleen ehunekoa % 5,6koa da, EB28ko herrialdeetako batez bestekoa baino 8,5 puntu txikiagoa eta EAEko (% 6,5) eta Espainiako




2.4 grafikoa. 2020an Gipuzkoako biztanleriaren Ekintzailtza-prozesuaren adierazleak, dirusarrera handiko beste ekonomia batzuetako biztanleriarekin eta Espainiako autonomia-erkidegoekin alderatuta. **Oharra.** * Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Suitza, Erresuma Batua, Polonia, Alemania, Portugal, Luxenburgo, Irlanda, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM Espainia (Neira et al., 2021).

batez bestekoa (% 7) baino zertxobait txikiagoa. Nazioarteko rankingean Italia baino ez dago Gipuzkoaren azpitik, eta Espainiako testuinguruan Asturias eta Valentziako Erkidegoa daude azpitik.

koaren (% 8,1) azpitik dago, eta EAEko (% 5,2) eta Espainiako (% 5,2) batez bestekoaren apur bat azpitik. Dirusarrera handiko ekonomien multzoarekin alderatuta, Polonia eta Italia baino ez daude Gipuzkoaren azpitik. Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta, 7 erkidegok dute puntu gutxiago.

b. Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren tasa (% 4,7) EB28ko herrialdeetako batez beste-



2.5 grafikoa. 2020an Gipuzkoan Ekintzailtza-jarduera gauzatzen den sektoreak.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

- c. Enpresa finkatuen eremuan (3,5 urte baino gehiago dituztenak), Gipuzkoaren posizioa nabarmentzen da 28EBko herrialdeetako batez bestekoarekin alderatuta (% 7,2), eta, hor, murriztu egiten da enpresa finkatu baten kudeaketan sartuta dauden edo enpresa bat jabetzan duten pertsonen ehunekoen arteko distantzia: Gipuzkoak % 5,2 du. Hau da, EAEkoa (% 5,8) eta Espainiakoa (% 6,7) baino pixka bat txikiagoa da. Aldiz, dirusarerra handiko herrialdeen rankingean (taldeko batez bestekoa % 6,9 da) 10 herrialdek dute datu txikiagoa. Espainiako gainerako eskualdeekin alderatuta, Madrilgo Erkidegoa, Kanariak eta Murtzia baino ez daude Gipuzkoaren azpitik.
- d. 2020an Gipuzkoan enpresajarduera bat utzi duten pertsonen ehuneko txikia nabarmentzen da (% 0,5), eta emaitza hobea da EB28ko herrialdeetako batez bestekoa (% 3), EAEko batez bestekoa (% 1) eta Espainiako batez bestekoa (% 1,3) baino.
- e. Barne-ekintzailtzako jarduerataso, dagoneko martxan dauden erakundeetan dauden ekimenena, Gipuzkoako biztanleen % 0,6koa da. Tasa hori EAEn (% 0,4) eta Espainian (% 0,8) erregistratutako tasen oso antzekoa, eta EB28ko ekonomien taldeko batez bestekoaren (% 3,8) oso azpitik daude.

Ekintzailtza-jardueraren kalitate zantzuak Gipuzkoan


Atal honetan, Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren ondoriozko negozioen kalitatezantzuak aztertzen dira, hala nola, jarduerasektorea, sortutako enpleguaren araberrako tamaina, etorkizunean enplegua sortzeko itzaropenak, berrikuntzamailla eta nazioarteko orientazioa.

Jarduera-sektorea

2.5 grafikoa Gipuzkoan 2020an identifikatutako ekintzailtza-jardueraren sektorebanaketa erakusten du. Gipuzkoan hasierako fasean dauden ekintzaileak kontuan hartuta, % 55,8 ezagutzaren arloko zerbitzu ezintentsiboetan daude, % 26,3 ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboetan, % 1 eraikuntzan, % 13,7 industrian, energian eta saneamenduan, eta % 1,1 nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan. Negozio finkatuen fasean dauden biztanleei dagokienez, % 57,7 ezagutzaren arloko zerbitzu ezintentsiboetan daude, % 17,4 ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboetan, % 2,8 eraikuntzan, % 18,2 industrian, energian eta saneamenduan, eta % 2,8 nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan.

2.6 grafikoa Gipuzkoan hasierako fasean dauden biztanle ekintzaileen ehunekoen banaketaren bilakaera erakusten du, beren negozioak

garatzen dituzten jarduerasektorearen arabera. Aurreko edizioekin alderatuta (2015-2019 aldia), sektorearen presentziak banaketa hau izan du:




2.6 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen Ekintzailtza-jardueraren bilakaera, jarduerasektorearen arabera, 2015-2020. *Iturria: GEM Gipuzkoa (APS, 2015-2020).*

- a. 2020an, TEA adierazlea osatzen duten Gipuzkoako ekintzaileen % 55,8k ezagutzaren arloko sektore ez-intentsiboetan garatzen zuten beren jarduera, eta horrek esan nahi du aurreko urteekin alderatuta (2015-2019), sektore horietan kontzentratutako TEAren proportzioa 2016ko gutxieneko % 62,3 eta 2017ko gehieneko % 70,9koa artekoa izan zela.
- b. Ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboak dagoenez, aurreko urteen aldean, gorakada ikusten da: Gipuzkoan hasierako fasean dauden Ekintzailtza-jardueren % 26,3. Horrela, sektore horietako TEAren proportzioa ehuneko 5,9 puntu igo da aurreko edizioarekin alderatuta (% 20,4tik % 26,3ra).
- c. Azken urtean Gipuzkoan hasierako fasean identifikatutako ekintzailtza-jardueraren % 1,0 baino ez ziharduen eraikuntzasektorean, eta horrek esan nahi du aurreko urteekin alderatuta murrizketa nabarmena izan dela; izan ere, sektore horretako TEAren proportzioa 2017ko gutxieneko % 1,0 eta 2016ko eta 2018ko gehieneko % 5,2 artekoa izan zen.
- d. 2020an, Gipuzkoan hasierako fasean zegoen ekintzailtza-jardueraren % 13,7 industria, energia eta saneamendusektorean gauzatzen zen. Horrek esan nahi du igoera handia izan dela aurreko urteekin alderatuta (2015-2019); izan ere, urte horietan proportzio hori 2015eko gutxieneko % 3,8 eta 2015eko gehieneko % 8,4 artekoa izan zen.
- e. Azkenik, TEA indizeak 2020an hautemandako ekintzailtza-jardueraren % 1,1 nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzasektorean gauzatzen zen. Proportzio hori txikia da aurreko urteekin alderatuta (2015-2019); izan ere, urte horietan, 2015eko gehieneko % 3,8 eta 2017ko gutxieneko % 1,0 bitartekoa da.

Egungo enpleguaren tamaina eta etorkizuneko enpleguari buruzko itxaropenak

- 2.7 grafikoa 2020an Gipuzkoan identifikatutako biztanle ekintzaileen ehunekoen banaketa erakusten du, elkarrizketa egiteko unean negozioak zuen enplegutamaina kontuan hartuta. Gipuzkoan hasierako fasean dauden ekintzaileei dagokienez, % 29,4k ez dute langilerik, % 24,2k 15 langile dituzte, % 6,3k 619 langile, eta % 2,1k 20 langile baino gehiago. Gipuzkoan enpresa finkatuen jabeek dagokienez, % 41,4k ez dute langilerik, % 35,6k 15 langile dituzte, % 6,7k 619 langile, eta % 9,6k 20 langile baino gehiago. Aurrekoa aintzat hartuta, esan daiteke ekintzailtza-jarduerak Gipuzkoako enpresaehuna elikatzen duela, batez ere mikro eta enpresa txikiekin.
- 2.8 grafikoa Gipuzkoan hasierako fasean dauden biztanle ekintzaileen ehunekoen banaketaren bilakaera erakusten du, egun negozioan dituzten langileen kopuruaren arabera. Bi joera ikusten dira, aintzat hartuta aurreko urteko datuak. Alde batetik, 2020an, oso antzekoa izan da honako kategoria hauen pisu erlatiboa: langilerik gabeko negozioak dituzten ekintzaileak (+% 0,9),




2.7 grafikoa. Egungo enplegua Ekintzaitza-jardueran, Gipuzkoan, 2020an. *Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).*

20 langile baino gehiago (+% 0,1) dituztenak eta 619 langile (% 0,8) dituztenak. Bestalde, 1 eta 5 langile arteko negozioak dituzten ekintzaileen kategoriaren pisu erlatiboak ehuneko 3,3 puntu egin du behera.


2.9 grafikoa 2020an Gipuzkoan identifikatutako biztanle ekintzaileen ehunekoen banaketa erakusten du, 5 urtera espero den enplegutamainaren arabera. Itxaropenen arabera, hasierako fasean dauden ekintzaileen % 60,2k espero dute datozen 5 urteetan gutxienez langile bat izatea; aldiz, negozio finkatuak dituzten ekintzaileen kasuan, % 44,3k soilik espero dute denboraerpe berean enplegua sortzea. Horrek esan nahi du negozio sortu berriak eta berriak dituzten ekintzaileek itxaropen baikorrak dituztela negozio finkatuak dituztenek baino.

2.10 grafikoa, 2015-2020 aldian, Gipuzkoan hasierako fasean dauden ekintzaileek, beren negozioetan 5 urtera begira duten enplegutartaren arabera, izan dituzten ehunekoen banaketa ikus daiteke. Ourreko edizioarekin alderatuta, hiru joera ikusten dira. Lehenik eta behin, ehuneko 2,5 puntu igo da etorkizunean 1 eta 5 langile artean izateko itxaropena duten ekintzaileen pisua. Bigarrenik, ehuneko 6 puntu jaitsi da




2.8 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen Ekintzaitza-jardueraren bilakaera, egungo enplegutartaren arabera, 2015-2020. *Iturria: GEM Gipuzkoa (APS, 2015-2020).*

etorkizunean 20 langile baino gehiago izateko itxaropena duten ekintzaileen pisua. Azkenik, ehuneko 3,4 puntu jaitsi da inor enplegatzea espero ez dutenen pisua. Oro har, etorkizunean norbait enplegatzea espero dutenen ehunekoa zertxobait jaitsi da azken urtean (% 60,2 2020an eta % 63,2 2019an).



2.9 grafikoa. Gipuzkoan Ekintzaitza-jardueraren bilakaera 2020an, 5 urtera espero duten enplegutartaren arabera. *Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).*



2.10 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen Ekintzaitza-jardueraren (TEA) bilakaera, 5 urtera espero duten enplegutartearen arabera. **Iturria:** GEM Gipuzkoa (APS, 2015-2020).


Orientazio berritzailea

Gogora dezagun 2019an GEM partzuergoak orientazio berritzailea neurtzeko modu berri bat ezartzea erabaki zuela. Produktu eta zerbitzuetan zein erabilitako teknologian eta prozesuetan sartutako berrikuntzaren irismeneremu geografikoa ezarri zen erreferentzia berri gisa. Aldaketa horrek berekin zekarren beste erreferentziarizpide batzuekin adostasun handiagoa zuen neurketaeredu baterantz egitea, hala nola, Osloko Eskuliburuarekin (OECD/Eurostat, 2018). Horrela, berrikuntza mota eskaintako produktu edo zerbitzuaren berritasunaren eta erabilitako teknologia edo prozesuen arabera bereizten da. Adierazi den bezala, sartutako berrikuntzaeremu hori ikuspegi geografiko baten arabera sailkatzen da, hau da, tokiko irismeneko, nazioko irismeneko eta irismen globaleko mailak bereizten dira.

Eskaintako produktuaren/zerbitzuaren orientazio berritzaileari dagokionez, 2.11 grafikoa erakusten du biztanleria ekintzaileen % 80k baino gehiagok (bai hasierako fasean, bai finkatutako fasean daudenak), ez dutela inolako berritasunik eskaintzen merkatuan. Berrikuntzak egiten dituztenen artean, gehienek tokiko


edo nazioko berritasuna eskaintzen dute, batez ere hasierako fasean dauden ekintzaileen kasuan (% 11,6 eta % 5,3, hurrenez hurren).

Denboraren ikuspegiaren arabera, hasierako fasean dauden eta eskaintzan berritasun bat duten proiektuen ehunekoak ehuneko hamar puntu egin du behera: 2019ko %29,6tik 2020ko % 19ra (ikusi 2.12 grafikoa). Berritasun horren irismen geografikoaren arabera, behera egin dute, halaber, intentsitate handieneko edo erradikalenerako mailek: sartutako berrikuntzaren nazio mailako irismena (negozioen % 5,3. 2019an % 15,4 ziren) eta eskala globala edo mundu mailakoa (hasierako fasean dauden negozioren % 2,1. 2019an % 5,1 ziren) (ikusi 2.12 grafikoa). Proporzio txikiagoan bada ere, negozio finkatuaren berrikuntzamailetan ere beherakada txikia nabari da. 2020an, jardueren % 87,5ek ez zuten inolako berritasunik eskaintzen produktuan edo zerbitzuan (2019an, berri, % 85,9k). Nolanahi ere, nabarmendu behar da handiagoa dela oraindik berrikuntzaren bat eskaintzen duten negozio berrien proportzioa (% 19), negozio finkatuena (% 12,5) baino (ikusi 2.11 grafikoa).




2.11 grafikoa. Gipuzkoako Ekintzaitza-jardueraren banaketa 2020an, produktuaren edo zerbitzuaren berritasunaren eremu geografikoaren arabera. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).


Antzeko jokabidea ikusten da negozioak erabiltzen dituen teknologien edo prozesuen berritasunmaila aztertzen denean (ikusi 2.12 grafikoa eta



2.12 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dauden eta produktu edo zerbitzuak berrikuntzak egiten dituen Ekintzailtza-jardueraren bilakaera. Sartutako berritasunaren eremu geografikoaren arabera banaketa. 2019-2020. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2019-2020).



2.14 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dauden (TEA) eta teknologia edo prozesuetan berrikuntzak egiten dituen Ekintzailtza-jardueraren bilakaera. Sartutako berritasunaren eremu geografikoaren arabera banaketa. 2019-2020. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2019-2020).




2.13 grafikoa. Gipuzkoako Ekintzailtza-jardueraren banaketa 2020an, produktuaren edo zerbitzuaren berritasunaren eremu geografikoaren arabera. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

2.14 grafikoa). Gipuzkoan hasierako fasean dauden ekintzaileen % 14,8k baino ez dute sartu mota horretako berritasunen bat; negozio finkatuak dituzten ekintzaileen kasuan, berriz, % 9,6k.


Hasierako fasean dauden biztanle ekintzaileen banaketa, 2020an teknologiaren edo prozesuaren berritasunaren arabera, ehuneko hamar puntu baino gehiago jaitsi da aurreko urtearen aldean; orduan, % 27,6k adierazi zuten berritasunen bat zutela ildo horretan (ikusi 2.4 grafikoa). Produktuaren edo zerbitzuaren berrikuntzan gertatzen zen bezala, berrikuntzamaile erradikalenak dira, hau da, naziomailakoak edo mundumailakoak, azken urtean gehien ahuldu direnak. Horrela, % Ora murriztu da hasierako fasean dauden eta irismen globaleko prozesuetan berritasun bat duten negozioen ehuneko (% 6,1 2019an), eta soilik % 2,1ek izango zuten maila nazionaleko berritasunen bat (% 13,3 2019an). Fase finkatuan dauden negozioekin alderatuz gero, handiago izaten jarraitzen du, oraindik ere, erabilitako teknologian edo prozesuetan berrikuntzak egiten dituzten negozioen ehuneko, berrikuntzaren irismen maila edozein dela ere: hasierako fasean dauden negozioen % 14,8k eta finkatuak % 9,6k (ikusi 2.13 grafikoa).

Nazioarteko orientazioa

Ekintzailtza-jardueraren nazioarteko orientazioa atzerrian bizi diren bezeroei egindako salmenten ehunekoaren bidez neurtzen da (2.15 grafikoa eta 2.16 grafikoa).



2.15 grafikoa. Gipuzkoako Ekintzailtza-jardueraren banaketa 2020an, atzerrian bizi diren bezeroei egindako salmenten ehunekoaren arabera. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).



2.16 grafikoa. Gipuzkoan hasierako fasean dagoen eta atzerrian bizi diren bezeroei saltzen dien Ekintzailtza-jardueraren bilakaera. 2015-2020. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

2020an, Gipuzkoan sortu berri ziren lau negozioetik batek (% 25,3) kanpoan saldu zuen. Ehuneko hori ehuneko bi puntu igo da 2019. urtearekin alderatuta (% 23,5). Esportatutako

jardueraren bolumenaren arabera, eutsi egin zaio fakturazio osoaren % 75 baino gehiago esportatzen duten negozio sortuen ehunekoari (% 2,1). Hala ere, hazkunde nabarmena ikusten da atzerriara egindako salmentak fakturazioaren % 25 eta % 75 artekoak diren proiektuen artean: 2019an % 5,1koa zen eta 2020an % 9,4koa. Azkenik, berrikuntzamailek aztertu ditugunean gertatu den bezala, ikusten da hasierako fasean dauden eta esportatzen duten negozioen ehunekoa (% 25,3) negozio finkatuen multzokoa (% 21,2) baino handiagoa dela.

Beste ingurune batzuekiko konparazioa

2.10 taulak eta 2.17 grafikoa Gipuzkoako ekintzailtza-jardueraren kalitatezantzen azterketa konparatiboa erakusten dute, Euskadiko, Espainiako eta Europako herrialdeetako adierazleekin alderatuta.

Edizio honetako datuek analisi konparatiboa egiteko aukera ematen dute, eta honako joera hauek nabarmentzen dira:

- Gipuzkoan hasierako fasean dagoen ekintzailtza-jardueraren sektore-azterketak adierazten duen banaketa EAEkoaren, Espainiakoaren eta azken urtean GEM proiektuan parte hartu duten EB-28ko herrialdeetako batez bestekoaren oso antzekoa da. Adibidez, lurralde horietako ekintzailtza-jardueraren % 44, gutxienez, kontsumitzailearentzako zerbitzuekin lotutako sektoreetan daude (Gipuzkoan ehuneko hori % 50,6koa da), eta % 30,8 gutxienez enpresentzako zerbitzuekin lotutako sektoreetan (Gipuzkoan ehuneko hori % 31,1koa da).
- Etorkizunean enplegua sortzeko itxaropenari begira, Gipuzkoan hasierako fasean dauden eta datozen bost urteetan gutxienez bost pertsonari lana ematea espero duten biztanle ekintzaileen ehunekoa (% 14,7) Espainiakoa (% 13,6) baino zertxobait handiagoa da, baina Europako batez bestekoaren

(% 24,3) eta EAEkoaren (% 19,3) azpitik dago. Datozen bost urteetan gutxienez bost pertsonari lana emateko itxaropena aztertuz gero, lurraldeen aukera zabalagoarekin alderatuta, Gipuzkoa azken postuetan dago diru-sarrera handiko ekonomien artean, eta Suitza (% 12,2), Austria (% 3,4) eta Espainia (% 13,6) baino ez daude Gipuzkoa baino behe-rago. Espainiako geografiaren barruan, Gipuzkoa, adierazle horren arabera, Madrilgo Erkidegoa (% 15,5), Nafarroa (% 25) edo EAE (% 19,3) baino beherago dago, baina Kanariak (% 14,6), Katalunia (% 14,5) edo Valentziako Erkidegoa (% 13,9) baino gorago.

c. Orientazio berritzaileari dagokionez, hasierako fasean dauden Gipuzkoako ekintzailleen artean xede merkatua gutxienez nazio mailakoa duten eta produktua/zerbitzua edo teknologia/prozesua, gutxienez, herrialde mailan ere berria duten biztanleriaren ehunekoa (% 6,3) GEM proiektuan parte hartzen duten EB-28ko herrialdeetako batez beste-koaren azpitik dago (% 18,7). Ehuneko hori


Espainiako (% 8,4) eta EAE osoko (% 9,6) datuen azpitik dago (2.10 taula). Oro har, Gipuzkoak diru sarrera handiko herrialdeekin alderatuta duen posizioa aztertzen badugu, nahiko atzeratuta dago, 2019ko posizioaren oso azpitik. Inkesta egin zaien Europako herrialde guztiek % 10etik gorako tasak dituzte adierazle horretan. Espainiako erradiografian, Gipuzkoa Valentziako Erkidegoaren (% 5,9), Errioxaren (% 5,7), Murtziaren (% 5,3) eta Balear Uharteren (% 3,6) aurretik dago soilik. Aragoi (% 16,3) eta Madril (% 12) dira rankingeko liderrak (2.17. grafikoa).

d. (a) Nazioarteko orientazioari dagokionez, Gipuzkoan hasierako fasean dauden eta atzerriko bezeroei saltzen ez dieten ekintzailleen ehunekoa (% 73,6) EB-28ko batez beste-koaren (% 69) gainetik dago, baina Espainiako (% 80,7) eta EAE osoko (% 80,1) datua baino txikiagoa da. Atzerriko bezeroei gutxienez % 1eko salmentak egiten dizkieten ekintzailleen proportzioa kontuan hartzen badugu, Gipuzkoa tar-teko maila batean dago (% 26,4), EAEren (%

Adierazlea	Gipuzkoa	Benchmarking		
		UE-28* herrialdeetako batez bestekoa	Espainia	EAE
Ekonomia-jarduera				
Erauzketa	% 1,1	% 5,9	% 5,1	% 1,0
Eraldatzea	% 17,2	% 19,3	% 17,6	% 15,9
Enpresentzako zerbitzuak	% 31,1	% 30,8	% 30,8	% 35,3
Kontsumitzaileentzako zerbitzuak	% 50,6	% 44,0	% 46,5	% 47,8
Etorkizuneko enplegu aurreikuspenak				
5 enplegu baino gehiago datozen 5 urteetan	% 14,7	% 24,3	% 13,6	% 19,3
Berrikuntza-maila				
Helmugako merkatua eta produktu edo prozesu berria, gutxienez maila nazionalen	% 6,3	% 18,7	% 8,4	% 9,6
Nazioartekotze-maila				
Ez du esportatzen	% 73,6	% 69,0	% 80,7	% 80,1
% 1-% 25	% 14,3	% 14,1	% 13,7	% 15,0
% 25-% 75	% 9,8	% 10,0	% 2,9	% 4,0
% 75 baino gehiago	% 2,2	% 7,0	% 2,7	% 0,9

2.10 taula. Ekintzailtza-jardueraren kalitatezantzuak. Gipuzkoako datuen konparaketa Europar Batasuneko herrialdeetako, Espainiako eta EAEko batez beste-koarekin. 2020an elkarrizketatutako hasierako fasean dagoen biztanleria ekintzailleen (TEA) ehunekoa. **Oharra:** Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko diru-sarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Suitza, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Portugal, Luxenburgo, Irlanda, Zipre, Letonia, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM ESPAINIA (Neira et al., 2021)

19,9) eta Espainiaren (% 19,3) gaineratik, baina EB-28ko batez bestekoaren azpitik (% 31). Hala ere, autonomia-erkidegoekin alderatuta, Gipuzkoa hirugarren postuan dago rankingean, eta Errioxak (% 27,3) eta Valentziako Erkidegoak (% 27,1) bakarrik gainditzen dute (2.17 grafikoa).



2.17 grafikoa. Gipuzkoak nazioartean duen posizionamendua (diru-sarrera handiko beste ekonomia batzuekin alderatuta), sortutako negozioen kalitatezantzu desberdinei dagokien 2020ko TEaren arabera. **Oharra:** Honako hauek dira 2020an GEM proiektuan parte hartu zuten EB-28ko dirusarrera handiko herrialdeak: Grezia, Herbehereak, Espainia, Italia, Austria, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Alemania, Luxenburgo, Zipre, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020), GEM EAE (Saiz et al., 2021), eta GEM ESPAINIA (Neira et al., 2021).

3.

Ekintzailetzari laguntzeko programa publikoak ezagutzea eta erabiltzea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



EEB | OVE


Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
Observatorio Vasco del Emprendimiento

Azken hiru urteetan, GEM proiektuaren esparruan informazio gehigarria bildu da, lehenik eta behin, Gipuzkoan bizi diren pertsona helduek, ekintzailtza-prozesuan sartuta egon ala ez, ekintzailetzarako dauden programa publikoak ezagutzen dituzten jakiteko; bigarrenik, programa publikoren bat ezagutzen duen biztanleria ekintzaileak harremanetan jarri eta laguntzarik eskatu duen jakiteko; hirugarrenik, laguntza eskatzeko programa publiko batekin harremanetan jarri diren ekintzaileak onuradun izan diren jakiteko; eta laugarrenik, laguntza jaso duten ekintzaileek laguntza baloratzeko eta gomendatzeko duten jakiteko. Jarraian, gai horietako baikoitza aztertuko dugu, bildutako informazioarekin.

Programa publikoak ezagutzea

Urtero, administrazio publikoek ekintzailtzari laguntzeko hainbat programa jartzen dituzte herritarren eskura, enpresa berriak sortzeko. Hala ere, programa horien erabiltzaile potentzialak harremanetan jartzeko eta laguntza eskatzeko, beharrezkoa da gizarteak eskuragarri duen eskaintzaren berri izatea. Alde horretatik, 3.1 grafikoak erakusten du 2020. urtean azterlan honetarako Gipuzkoan elkarrizketatutako helduen % 44,7k ezagutzen zutela berriaz ekintzaileei zuzendutako programa publikoren bat.


Lehen aldiz, ehuneko hori nahiko antzekoa da ekintzailtza-jardueran parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten pertsonen artean, eta hori ez dator bat aurreko urteetan ikusitakoarekin; izan ere, ekintzailtza-prozesuan parte hartzen ez zuten pertsonak ez zeuden hain ohituta programa publikoekin ekintzaileekin alderatuta. Zehazki, azken urtean, ekintzailtza-prozesuan sartuta ez zeuden pertsonen % 44,5ek ezagutzen zuten ekintzailtzari laguntzeko programa publikoren bat; sortzen ari diren edo finkatuta dauden negozioak dituzten ekintzaileen artean, berriz, % 46,5ek ezagutzen zuten (ikusi 3.1 grafiko).



3.1 grafikoa. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoek buruzko ezagutza. 2020an elkarrizketatutako 18 eta 64 urte bitarteko biztanle heldu guztien ehuneko eta ekintzailtza-prozesuan duten inplikazioaren arabera bereizketa.

Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Aurreko urteekin alderatuta, ikus daiteke, oro har, ekintzailtza-programa publikoren bat ezagutzen duten helduen ehunekoak gora egin duela: 2018an, % 25,7 ziren; 2020an, berriz, % 44,7 (ikusi 3.2 grafikoa). Hala ere, 2019tik 2020ra bitartean, ekintzailtzari laguntzeko programa publikoekin ohitzeak gora egin zuen soilik ekintzailtza sartuta ez zeuden biztanleen artean (% 33,4 2019an, eta % 44,5, berriz, 2020an), eta behera egin zuen ekintzaileen artean (% 53,5 2019an, eta % 46,5, berriz, 2020an).



3.2 grafikoa. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoak ezagutzen dituztela dioten 18 eta 64 urte bitarteko helduen ehunekoaren bilakaera. 2018-2020.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2018-2020).

Azpimarratu behar da garrantzitsua dela, programa publikoak daudela jakiteaz gain, administrazio publikoaren maila guztietan laguntza

eskatzeko harremanmoduarekin ohituta egotea. Hortaz, 2020an elkarrizketatutako Gipuzkoako helduen % 44,7k ekintzailtzako programa publikoak bazeudela bazekien, baina 3.1 taulan ikus daiteke % 27,2k soilik zekitela harremanetan nola jarri Erkidegoko Administrazioaren laguntza eskatzeko, % 16,6k bakarrik zekiten harremanetan nola jarri foruadministrazioaren eta toki-administrazioaren laguntza eskatzeko, eta % 9,9k baino ez zekiten harremanetan nola jarri Estatuko Administrazioaren laguntza eskatzeko.


Eusko Jaurlaritzaren laguntzaprogramekin harremanetan jartzea Foru Aldundiaren edo udalen programekin harremanetan jartzea baino ohikoagoa da, eta azken horiekin harremanetan jartzea Estatuko Administrazioaren programekin harremanetan jartzea baino ohikoagoa da. Ordena hori bistakoa da, eta ez da alde handirik ikusten ekintzailtza-prozesuan sartuta dagoen biztanleriaren eta sartuta ez dagoen biztanleriaren artean (ikusi 3.1 taula).

Programa publikoetarako laguntzak eskatzea eta harremanetan jartzea


Ekintzailtza-prozesuan sartuta zeuden eta ekintzailtzari laguntzeko programa publikoak ezagutzen zituzten biztanleen artean, 3.3 grafikoa erakusten du % 16,4 harremanetan jarri

Adierazlea	18-64 urte bitarteko biztanleria osoaren %		
	Ekintzailtza-prozesuan sartuta dago	Ez dago sartuta ekintzailtza-prozesuan	Guztira
Ba al dakizu nola jarri harremanetan laguntzaprogramak eskatzeko...			
... Estatuko Administrazioarekin (Espainiako Gobernuak)?	% 7,6	% 10,1	% 9,9
... Administrazio autonomikoarekin (Eusko Jaurlaritza)?	% 28,8	% 27,1	% 27,2
... probintzia-administrazioarekin (Foru Aldundia)?	% 15,6	% 16,7	% 16,6
... toki-administrazioarekin (Udala)?	% 13,7	% 17,0	% 16,6
... beste erakunde publikoren batekin?	% 1,7	% 2,4	% 1,7

3.1 taula. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoekin harremanetan jartzeko moduari buruzko ezagutza administrazio publikoaren mailen arabera. 2020an elkarrizketatutako 18 eta 64 urte bitarteko biztanle heldu guztien ehuneko eta Ekintzailtza-prozesuan duten inplikazioaren araberrako bereizketa. *Iturria:* GEM GIPUZKOA (APS, 2020).



3.3 grafikoa. Azken urtean laguntza eskatzeko ekintzaitzari laguntzeko programa publikoekin kontaktua. 2020an Ekintzaitza-prozesuan sartuta egon eta programak ezagutzen dituzten biztanleen ehunekoa.
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2020).



3.4 grafikoa. Ekintzaitza-prozesuan parte hartu duten eta, azken urtean, laguntza eskatzeko, programaren batekin harremana izan dutela dioten biztanleen ehunekoaren bilakaera (2018-2020).
Iturria: GEM GIPUZKOA (APS, 2018-2020).

zirela administrazio publikoarekin, azken urtean laguntza eskatzeko. Ehuneko hori aldatu egiten da ekintzaitza-prozesuaren fasearen arabera, eta % 19,1era igotzen da hasierako fasean dauden negozioak dituzten ekintzaileen kasuan, eta % 11,8ra jaisten da negozio finkatuak dituzten ekintzaileen kasuan.

3.4 grafikoa erakusten duen bezala, adierazle hori nabarmen jaitsi da azken urtean, batez ere TEA adierazlean agertzen den eta hasiera-

ko fasean dauden ekintzaileen kasuan. Zehazki, ekintzaitza-prozesuan sartuta zeuden, programen berri zuten eta horietako batean laguntza eskatzeko harremana izan zuten pertsonen ehunekoak behera egin zuen 2020an (% 16,4) 2019 urtearekin alderatuta (% 29,3). Ikus daitekeenez, jaitsiera hori bereziki nabaria da hasierako fasean dauden ekintzaileen artean (% 41,7 2019an, eta % 19,1, berriz, 2020an), baina are nabarmenagoa da fase finkatuan dauden ekintzaileen artean (% 18,0, 2019an, eta % 11,8, berriz, 2020an). Aurreko urteekin alderatuz gero, azken urteko beherakada bat-batekoa da; izan ere, 2018 eta 2019 urteetan ez zen ia aldaketarik izan adierazle horretan (ikus 3.4 grafikoa). Hala ere, koronabirusaren pandemiaren eraginarekin bat datorren bilakaera da, eta, beraz, kontuz interpretatu behar da.

Administrazio publikoaren mailen arabera bereiziz gero, ikus daiteke Eusko Jaurlaritzaren programak direla ekintzaitza-prozesuan sartuta dauden herritarrek gehien kontaktatzen dituztenak (ikus 3.2 taula), eta, beraz, bat datoz programarik ezagunenak izatearekin, lehen aipatu bezala (ikus 3.1 taula).

Oro har, % 16,4 jarri ziren harremanetan programa publikoren batekin laguntza eskatzeko. Hala ere, azken urtean Eusko Jaurlaritzaren programetako laguntza eskatu zuten eta programaren bat ezagutzen zuten ekintzaileen multzoa % 5,5 izan zen; udalen eta Foru Aldundiaren programetako laguntza eskatu zutenen ehunekoa, berriz, % 4,4 eta % 1,1 izan zen, hurrenez hurren. Bestalde, Estatuko Administrazioari laguntza eskatu ziotenak % 1,1 izan ziren, baita beste erakunde publiko batzuei laguntza eskatu ziotenak ere (ikus 3.2 taula).

3.2 taulan ikus daitekeenez, azterlan honetan identifikatutako eskatzaileen proportzioa erlatiboki handiagoa da hasierako fasean dagoen biztanleria ekintzailearen barruan finkatutako ekintzaileen kasuan baino.

Adierazlea	Programaren bat ezagutzen duen eta ekintzaitza-prozesuan parte hartzen duen biztanleria osoaren %		
	TEA	Finkatuak	Guztira
Azken urtean, eskatu al du laguntzarik...			
... Estatuko Administrazioari (Espainiako Gobernua)?	% 0,0	% 3,0	% 1,1
... Administrazio autonomikoari (Eusko Jaurlaritza)?	% 7,0	% 3,0	% 5,5
... probintzia-administrazioari (Foru Aldundia)?	% 1,7	% 0,0	% 1,1
... toki-administrazioari (udala)?	% 6,9	% 0,0	% 4,4
... beste erakunde publikoren bati?	% 1,8	% 0,0	% 1,1


3.2 taula. Azken urtean ekintzaitzari laguntzeko programa publikoen laguntza-eskaera Administrazio Publikoaren mailen arabera. 2020ko ekintzaitza-prozesuan parte hartu eta programak ezagutzen dituzten biztanleen ehunekoa. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Programa publikoen onuradunak eta jasotako laguntzaren jatorria


3.5 grafikoan ikus daitekeenez, azken urtean laguntza eskatzeko programaren batekin harremanetan jarri ziren ekintzaileen artean, % 39,8k esan zuten eskatutako laguntzaren onuradun izan zirela. Hala ere, adierazle hori nabarmen desberdina da prozesu ekintzailearen fasea hasierakoa edo finkatua den kontuan hartuta. Hori aintzat hartuta, azken urtean ekintzaitzari laguntzeko programa publikoren batekin harremanetan jarri diren pertsona guztietatik, % 45,2k lortu zuten onuradun izatea hasierako fasean zeuden ekintzaileen kasuan, eta % 24,9k finkatutako ekintzaileen kasuan (ikus 3.5 grafikoa).

Azken hiru urteotan, pertsona onuradunen pisu erlatiboak, ekintzaitzari laguntzeko programa publikoren batekin harremanetan jarri ziren pertsona guztien ehunekoak, behera egin du: 2018an, % 62,5 ziren; 2020an, berriz, % 39,8 (ikus 3.6 grafikoa).

Zehazki, eskatzaile guztiekiko onuradunen ehunekoaren beherakada hori % 15,5ekoa izan da 2018 eta 2019 artean (% 62,5 eta % 47,0, hurrenez hurren) eta % 7,2koa 2019 eta 2020 artean (% 47,0 eta % 39,8, hurrenez hurren). Hala ere, 3.6 grafikoan ikus daitekeen bezala, adierazle horren urtez urteko beherakada askoz ere nabarmenagoa da finkatutako fasean dauden ekimenen kasuan (% 36,4ko beherakada 2018 eta 2019 artean eta % 11,5ekoa 2019 eta 2020 artean), hasierako fa-



3.5 grafikoa. Ekintzaitzari laguntzeko programa publikoen laguntzen onuradunak. Azken urtean laguntza eskatzeko programaren batekin harremanetan jarri diren eta 2020an Ekintzaitza-prozesuan sartuta dauden biztanleen ehunekoa. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).



3.6 grafikoa. Ekintzaitza-prozesuan sartuta dagoen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, laguntza eskatu eta programaren laguntza jaso duela adierazi duena (2018-2020). **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

sean dauden eta TEA adierazlea osatzen duten ekintzaileen kasuan baino (% 1,8ko beherakada 2018 eta 2019 artean eta % 6,8koa 2019 eta 2020 artean).

Administrazio publikoaren mailen arabera, azken urtean laguntza eskatzeko programa publikoren batekin harremanetan jarri diren ekintzaileen multzo globaletik, % 19,9k Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren baten onuradun izatea lortu zuten, % 19,7k udalen laguntzaren baten onuradun izatea lortu zuten eta % 6,5ek Foru Aldundiaren laguntzaren baten onuradun izatea lortu zuten (ikus 3.3 taula). Era berean, 3.3 taulan ikus daitekenez, negozioak hasierako fasean zituzten ekintzaileen artean, identifikatutako onuradunen ehunekorik handienak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuen (% 18,2); ondoren,

udalen laguntza (% 17,9) eta, azkenik, Foru Aldundiaren laguntza (% 8,9) jaso zutenak daude. Hala ere, negozio finkatuak dituzten ekintzaileen artean, Eusko Jaurlaritzaren (% 24,9) eta udalen (% 24,9) laguntza jaso zuten pertsonak baino ez ziren identifikatu.

Azterlan honetan identifikatutako onuradunek jasotako laguntzaren programa publikoen adibide batzuk 3.4 taulan ageri dira. Zehazki, hasierako fasean dauden ekintzaileen artean, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak eskaintzen duen Ekintzaile 2020 Programaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen Txekintek Programaren onuradunak identifikatu ziren. Bi programa horietako laguntzak Enpresa Berrikuntzako Zentroen (BIC) sarearen bidez bideratzen dira. Era berean, Donostiako Sustapena

Adierazlea	Programaren batekin harremanetan jarri diren eta ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanle guztien %		
	TEA	Finkatuak	Guztira
Nondik dator laguntza...			
... Estatuko Administrazioetik (Espainiako Gobernua)?	% 0,0	% 0,0	% 0,0
... Administrazio autonomikotik (Eusko Jaurlaritza)?	% 18,2	% 24,9	% 19,9
... probintzia-administrazioetik (Foru Aldundia)?	% 8,9	% 0,0	% 6,5
... toki-administrazioetik (udala)?	% 17,9	% 24,9	% 19,7
... beste erakunde publikoren batetik?	% 0,0	% 0,0	% 0,0

3.3 taula. Ekintzailtzari laguntzeko programa publikoetatik jasotako laguntzaren jatorria administrazio publikoaren mailen arabera. Azken urtean laguntza eskatzeko programaren batekin harremanetan jarri diren eta 2020an Ekintzailtza-prozesuan sartuta dauden biztanleen ehunekoa. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).

Administrazio publikoaren eremua	Programa publikoen izenak	
	TEA	Finkatuak
... Estatuko Administrazioa (Espainiako Gobernua)?	Ez da identifikatu	Ez da identifikatu
... Administrazio autonomikoa (Eusko Jaurlaritza)?	Ekintzaile 2020 programa, BIC baten tutoretzapean dauden enpresa-proiektu berritzaile berriei finantza-laguntza ematekoa. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren laguntza.	Ez da identifikatu
... probintzia-administrazioa (Foru Aldundia)?	Txekintek programa, enpresa-proiektu berritzaile berriei BIC Gipuzkoaren bidez laguntzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuaren laguntza.	Ez da identifikatu
... toki-administrazioetik (udala)?	Enpresak Sortzeko Programa 2020, Donostiako Sustapena garapen-agentziarena	Ez da identifikatu

3.4 taula. 2020an identifikatutako laguntza-hartzaileek baliatu dituzten programa publikoen adibideak. **Iturria:** GEM GIPUZKOA (APS, 2020).


garapen-agentziaren Enpresak Sortzeko 2020 Programaren onuradunak identifikatu ziren. Onuradun gisa identifikatu ziren eta negozio finkatuak dituzten ekintzaileen kasuan, ezin izan zen inolako laguntza programaren izen zehatza lortu.

Jasotako programa publikoen laguntzen eragina eta horiek gomendatzea


Ekintzaitzari laguntzeko programa publikoen laguntzen eraginari dagokionez, 2020an jasotako datuek erakusten dute programa publikoen onuradun gisa identifikatu ziren ekintzaileen % 33,5ek ez luketela bere negozioarekin jarraituko, duela gutxi jasotako laguntza horregatik ez balitz (ikusi 3.7 grafikoa). Beraz, azterlan honetan identifikatutako onuradunen heren barentzat, jasotako laguntza funtsezkoa izan da merkatuan jarraitzeko; aldiz, azterlan honen bi herenentzat, negozioak jarraitu egingo luke laguntza jaso ez arren.

Hala ere, 3.7 grafikoa prozesu ekintzailearen fasearen arabera aztertuz gero, ikus daiteke negozioaren biziraupena jasotako laguntzarekin lotzen duten onuradunen proportzioa erlatiboki handiagoa dela hasierako fasean dauden ekintzaileen artean fase finkatuan dauden ekintzaileen artean baino (% 40,3 eta % 0, hurrenez hurren).

